

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Basauri



Aurkibidea

Udalerria: Basauri

Sarrera



Nerbioi ibarreko udalerria, Bilboko gune metropolitarrereko seigarren herririk populatuena. XIX. mendeko industrializaziora arte, nekazal herria zen, baina nekazaritzaren gainbeherarekin industriak bete zuen haren tokia. Azken hamarkadetan, herriko jatorrizko euskara desagertuz joan da. Hala ere, azken hiztun horien lekukotasunak batu ahal izan ditugu.

Argazkia: [Lorena Fernández](#)

- **Biztanleak:** 42.657
- **Euskaldunak:** %23,43

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **36**
- Zintak: **131**
- Pasarteak: **171**
- Transkribatutakoak: **46**
- Audioak: **149**
- Bideoak: **22**

Proiektuak

- Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- Dialektologia-EHU
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Jose Maria Arteta Ibarretxe (1913)

Artunduagan jaio zen eta bertan bizi izan zen. Euskara apur bat ahaztuta zuen. Bere andrea [Juana Lejarza](#) eta [Victoriano Azkueta](#) ere izan ziren elkarriketan.

Pantxike Arteta Ibarretxe (1918-1992)

Artunduaga auzoan jaio zen. Bertako baserrian bizi izan zen hil arte. Ama Arteaga auzokoa zen eta aita Artunduagakoa bertakoa. Euskaraz ondo egiten zuen Senarra Arrigorriagako Buia aldekoa da eta euskaraz ederto zekien. [Mari Lejarzegi](#)rekin batera Artunduaga aldeko euskararen eredutzat hartu zuten.

Juanita Arteta Larrea (1925)

Arizen jaio zen 1925. urte inguruan. Torrean bizi izan zen. Ama, Patxa, Arizeko torrean jaio zen; aita Artunduagan. Euskara amarekin egiten zuelako gorde zuen. Dena den, erraztasuna apur bat galduta zeukan. Senarra, [Domingo Castillo](#), Galdakoko euskalduna zuen.

Rosario Atxa Arteagoitia (1926)

Ama Uriarte auzokoa eta aita Txorierrri aldekoa. Uriarteko baserrian bizi zen ama eta senarragaz. Euskara noizean behin erabiltzen zuen.

Miren Atxa Ozerin (1921)

Ibarguenen jaio zen bere ama bezala, aita, ostera Laudiokoa zuen, biak euskaldunak. Euskara apur bat nahastuta zuen, baina ondo egiten zuen. Ibarguenetik Uriartera joan zen bizitzen. Bilbon 15 urte eman zituen, ezkondu aurretik. Euskaraz sarritan egiten zuen.

Pedro Aurtenetxe Madariaga (1902)

Uribarriko baserrian jaio zen. Ama Uribarrin jaioa zen eta aita Benta aldean, Bidebietan. Euskaraz egiteko ohitura galduta zeukan, baina ederto moldatzen zen. Uribarriko soloa lantzen zuen egunero, baina Bidebietako pisu batean bizi zen. Jende gutxirekin egiten zuen euskaraz. Bazekien hikaz. Afrikako gerran ibili zen. Uribarriko euskararen eredutzat hartua.

Victoriano Azkueta Landeta (1920)

Artunduagako baserrian jaio zen 1920. urte inguruan. Ama Artunduagakoa zuen eta aita Zaratamokoa. Euskaraz nahiko ondo egiten zuen, baina apur bat nahastuta zeukan, Basauriko gizonezko gehienen moduan. Bazekien hikaz egiten. [Jose Mari Arteta](#) eta honen andrea [Juana Lejarzagaz](#) egin zitzaion elkarrizketa.

Bixenta Beti Abrisketa (1911)

Finagan jaio zen, baserrian 1911 inguruan. Bidebietara ezkondu zen. Ama Finagakoa zuen eta aita Zeberiokoa. Finagako euskara egiten zuen. [Karmen Mojaren](#) lehengusina da. Oso ondo zekien euskaraz, baita hika ere. Erdaraz askoz sarriago egiten zuen euskaraz baino.

Domingo Castillo Olea (1922)

Galdakaoko Urreta auzoan jaio zen. Gurasoak ere galdakoztarrak zituen, Urreta aldekoak. [Juanita Arteta](#) gaz ezkondu ostean, Basauriko Arizen bizi izan zen. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa emaztearekin batera.

Maria Elorrieta Ereñaga (1923)

Etxebarriko alaba da. Santa Marina aldeko baserri batean jaio zen. Ama Durangokoa zuen eta aita Etxebarrikoa. Basauriko Ugarte auzora ezkondu zen [Felix Solaguren](#) egaz. Basauriko plazan postua zuen. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa senarrarekin batera.

Mari Luz Esteban Galarza (1959)

Encarnación Etxebarria Goikolea (1897)

Lapatzan jaio zen. Aita Lapatza bertakoa zuen eta ama Gernikakoa. 94 urte zituela egin zitzaion elkarrizketa [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako, [Karmen Larrea](#) alabarekin eta [Jose Mari Jauregi](#) suhiarekin batera. Adina dela-eta, ez zitzaion oso ondo ulertzen.



Koldo Garcia Etxebarria (1982)

Biologian lizentziatua eta genetikan doktorea eta dibulgatzailea. UEUko bazkidea da.

Gabino Gorostiaga Azkue (1912-1992)

Ariz auzoko torreon jaio zen 1912. urte inguruan. Ama ere Arizen jaio zen; aita Diman. Bazekien hikaz egiten. Jende gutxirekin egiten zuen euskaraz eta apur bat ahaztuta zeukan. Hala ere, Arizko euskararen eredutzat hartu zuen Jon Arretzek. 1992an hil zen 90 urte zituela.

Mariano Ibarretxe Ibarretxe (1923)

Arteaga auzoan jaio zen. Ama Lapatzan jaio zen eta aita Arteagan bertan. Euskaraz egitea asko kostatzen zitzaion. Baserritar bizimodua izan zuen. Elkarrizketa sasoiari, 67 urte zituen.

Maria Jesus Izagirre Ibarra (-2017)

Finagan jaio zen eta Atxikorren bizi zen, baserrian. Ama Finagakoa zuen eta aita Zollokoa. Senarra ere euskalduna zen, Zaratamokoa. Berak zioenez amaren euskara egiten du, aita normalean kanpoan egoten baitzen. Bere etxean leku askotako euskara entzuten da eta horrek badauka eragin apur bat bere hizkeran, Euskal Herrian zehar ere asko ibili izan zen. Grabazioan 65 urte inguru zituen.

Jose Maria Jauregi Markiegi (1922)

Lezaman jaio zen. Ama Begoñan jaioa zen, baina berehala joan zen Lezamara. Aita Larrabetzuko Goikolexeakoa zen. Basauriko Luzarrera ezkondu zen [Karmen Larrea](#)gaz. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa emaztearekin eta [Enkarna Etxebarria](#) amaginarrebarekin batera.

Jose Ramon Larrea Bilbao (1910)

1910. urte inguruan Arizen jaio zen. Bere ama Zeberiokoa zen eta aita Arizeko torreakoa. Umetan Zeberiora joan zen eta 10 urte bete arte han bizi izan zen. Beste 6 urte Ugaon eman zituen eta gero Basaurira joan zen. Zeberioko euskara egiten zuen gehienbat.

Fermin Larrea Ereño (1915-2010)

Etixerre auzoko baserrian jaio zen. Ama Etxebarriko Kukullaga auzokoa zen eta aita Arizeko torreakoa. Bere emaztea Elexalde auzoko euskalduna zen. Sarritan egiten zuen euskaraz.

Karmen Larrea Etxebarria

Luzarren jaio zen elkarrizketa egin baino 67 urte lehenago, 1923 inguruan. Aita Luzarren jaioa zuen eta [ama](#) Lapatzakoa. Aitaren aita Bedia aldetik etorri omen zen. Beti egin zuen euskaraz, [ama](#)rekin zein [senarra](#)rekin (Lezaman jaioa). Hirurak batera bizi izan ziren Luzarreko baserrian. Eskolara joan orduan ikasi zuen erdaraz. Luzarre aldeko euskararen eredutzat har daiteke.

Juana Lejarza Jemein (1916)

Zamudion jaio zen. Ama Markinakoa zuen eta aita Dimakoa. Basauriko Artunduaga auzora ezkondu zen [Jose Mari Artetagaz](#). [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa senarrarekin eta [Victoriano Azkuetagaz](#) batera.

Karmen Lejarzegi Lauzirika (1905)

Artunduagan jaio zen eta gero Basozelai aldeko txalet-etxean bizi zen. Ama Artunduagakoa zen eta aita Gernika aldetik etorri zen. Amaren ama Artunduagakoa zen, amaren aita Gernika aldekoa. Euskaraz ederto zekien eta erabili egiten zuen.

Maria Lejarzegi Lauzirika (1901)

Artunduaga auzoan jaio zen eta Etxerre auzora ezkondu zen. Baserrietan bizi izan zen ia beti. Ama Artunduagakoa zen eta aita Ibarruritik (gaur egun Muxika) etorri zen. Amaren ama Artunduagakoa zen, amaren aita Gernika aldekoa. Ederto egiten zuen euskaraz. Zazpi urte bete arte ez zekien batere erdaraz. Basauriko euskararen eredutzat aukeratuetariko bat da, Artunduaga aldekoa.

Juan Llaguno Bilbao (1925)

Elexalde auzoan jaio zen. Aita Artzentalesekoa zuen eta ama Bakiokoa. Gehienbat Bakio aldeko euskaraz egiten zuen.

Kalixta Madariaga Etxeandia (1908)

1908 inguruan jaio eta Lapatzako baserrian jaio eta bizi izan zen beti. Ama Zamudion jaioa zuen eta aita Lapatzan bertan. Lapatzako euskara egiten zuen. Bilbora joaten zen esnea saltzera eta jende gehienarekin euskaraz egiten zuen. Lan honetarako eredu nagusietariko bat da, Lapatza aldeari dagokiona. Bere ahizpa [Kandida](#)rekin eta Arrigorriagako [Agustina Mujika](#)rekin batera egin zioten elkarrizketa.

Kandida Madariaga Etxeandia (1912)

Lapatzan jaio zen 1912 inguruan. Euskaraz oso ondo egiten zuen. Bere ahizpa [Kalixta](#)gaz eta Arrigorriagako [Agustina Mujika](#)gaz batera egin zitzaion grabazioa.

Karmen Moja Abrisketa (1906)

Finaga auzoan jaio zen baserritarra. Gero Atxikorrera ezkondu zen. Ama Finagakoa bertakoa zuen eta aita Briskietakoa . Esnea saltzera joaten zen Bilbora San Migeleko beste batzurekin. - Oso ondo egiten zuen euskaraz, zuka, berorika eta hika, gizonezkoena eta andrazkoena ondo bereiztuz . Bere etxean erdaraz egiten zuten, nahiz eta denak euskaldunak izan. Elkarrizketa garaian, euskaraz oso jende gutxirekin egiten zuen. Lan honetarako lekuko nagusia izan zen. Lehen grabazioa egin zitzaionean, 1988. urtean, 82 urte zituen eta azkena egin zitzaionean 86.

Jose Moja Elordui (1929)

Finagan jaio zen. Bere gurasoak ere, biak, Finagan jaio ziren. [Karmen Moja](#)ren iloba da. Emaztea, [Eugenia Legina](#), Begoñakoa (Bilbo) zuen. Biak euskaldunak izan arren eta Finagako baserrian bizi arren, normalean erdaraz egiten zuten. Jende gutxirekin egiten zuen euskaraz. 18 urte bete arte ez zekien ganoraz erdaraz . Artzeko tailer batean eta Arrigorriagako papeleran egin zuen behar. Fonetikako triangulo bokaliko akustikoa aztertzeke eredu aproposa. Ikerlan honetako triangulua berari esker egin zen . Grabazio garaian, 62-63 urte inguru zituen.

Petra Ozerin Amundarain (1922)

Ibarguen auzoan jaio zen 1922 urte inguruan. Aita bere auzo berekoa zuen eta ama Zaratamokoa. Bere amak ez ome zekien euskaraz. Gero Errekalde auzoan bizi zen. Euskaraz ederto egiten zuen. Senarra, [Mariano Uriarte](#), Uriartekoa zuen, euskalduna. Normalean erdaraz egiten zuen.

Klara Santamaria Elorriaga (1929)

Morgan jaio arren, txiki-txikitan Ugartera joan zen bizi izatera. Ama Morgakoa zuen eta aita Zeanurikoa zuen, itsasgizona. San Migeleko eskolara joan zen. Gurasoekin beti egin zuen euskaraz berba. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.

Felix Solaguren Barañano (1921)

Ugarte auzoan jaio zen. Ama Zeberrikoa zuen eta aita Lapatza auzokoa. [Andrea](#) Etxebarriko euskalduna zen, baina erdaraz egiten zuten. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa andrearekin batera

Mariano Uriarte Loroño (1925)

Uriarten jaio zen 1925 urte inguruan. Bere ama Larrabetzun jaio zen eta aita Lapatza auzoan. Igertzen zaio amaren euskararen eragina, apur bat nahastea dauka. Hika erabiltzen zuen normal-normal. [Petra Ozerin](#)ekin ezkondu zen.

Zeilia Urkiza Asua (1906)

Artunduaga aldeko "Urkitzena" baserrian jaio zen 1906. urte inguruan. Ama Larrabetzuko zen eta aita Urkitzenekoa. Errekalde auzoko baserrian bizi zen alaba eta suhiarekin. Bere senarra Errekaldekkoa zen. Esne saltzailea. Euskaraz oso ondo egiten zuen. Basauriko euskara egiten zuen, nahiz eta ama kanpokoa izan. Lan honen ereduatariko bat da .

Madalena Zabala Bilbao (1908)

Uribarri auzoko baserrian jaio zen. Ama Igorretik etorri zen gaztetan eta ita Uribarrikoa zen. Uribarriko euskara egiten zuen. Bere ahizparekin eta [Pedro Aurtenetxe](#)rekin batera Uribarriko euskararen eredutzat har daiteke. [Maria Zabala](#)ren ahizpa bikoitza da. Elkarrekin bizi ziren.

Maria Zabala Bilbao (1908)

Uribarri auzoko baserrian jaio zen. Ama Igorretik etorri zen gaztetan eta aita Uribarrikoa zen. Uribarriko euskara egiten zuen. Apur bat galduta zeukan euskaraz mintzatzeko erreztasuna. Bere ahizparekin eta [Pedro Aurtenetxe](#)rekin batera Uribarriko euskararen eredutzat har daiteke. [Madalena Zabala](#)ren ahizpa bikoitza da. Elkarrekin bizi ziren.

Maria Zamakona Etxebarria (1902)

Bizkotzalde auzoan jaio zen eta grabazioa egin zitzaionean 88 urte zituen. Gurasoak Bediakoak ziren. Hori dela-eta, Arratia aldeko euskara egiten zuen gehienbat.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Ikastolak falta

- **Hizlaria(k)**: Castillo Olea, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-004/005
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:10:17. **Bukatu**: 00:11:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Gazte zirenean ikastolarik ez zegoela eta eskola denak gazteleraz zirenez, ikasteko aukerarik ez zuten izan. Euskaraz soilik zekiten umeei eskolan barre egiten ziotela gogoratzen du Domingok; ondorioz, gurasoek gazteleraz egiten zieten seme-alabei.

Transkripzioa

- Abadiñon gure gazte denporan zer edo zer zauena txarto?
- Ba ikastolarik ez.
- Dana erderaz iten zan eskolatan. Ez zan egongo ikastolarik. Orduko edadeko jendeak ez otsen irakatsi seme-alaberi.
- Joaten zen...[...] seme bat eta alaba bat joaten zen eskolara, euskera zakina, ta danak barre egiten otsien.
- Bai, bai, bai.
- Nahiz ta jakingo aurien, danak erderaz egiten aurien. Ta orduan barre egiten otsien da... txarto hori benetan.
- Bai.
- Ta horrexegeitik, etxian iten otsien umeari erderaz. Eskolan kokolokuen moduen iten eben eskolan, kokoluen moduen, igual: "bai, sí, no". Ta klaro han elkartu, erdera fasilidadez urten. Ta urtebete barru...

1.2. Finagako letanietako ohiturak

- **Hizlaria(k):** Beti Abrisketa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-023/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Finaga alboko ermitan maiatzeko letanietan ospatzen ziren meza eta orduko ohiturei buruz dihardu.

Transkripzioa

- Han, San Migelen dau ermita bat, oin jauzite egongo da igual e, baia ermitie izin zen han goixan.
- Nun, ze partetan?
- Fiñagan bertan.
- Fiñaga ermitie?
- Emitia albuán. Hantxe fiñagan albuán dau ermita bat, San Martin. Ta han zana, Arduxa partie. Nola lehen treniak etorten zien maietzien, merkaniaz.
- Bai.
- Ta etortzen zen egun baten abadie, ta eskolako mutilek eta... guro zunak joan, etortzen ziren Fiñagara, letanian, ta Fiñagan mezie emoten eudien abadiék.
- Bai.
- Emoten eben ogixe ta vino blanco ta honi jentiedi...
- Bai.
- Egun beten, maietzien, letaniaz.
- Bai, bai.
- Baie oin ez dakit nik badan bere... urte asko da ez nazela joan hara! Baie

ermitte hori.. badau beste ermitte, teiletue apurtutue eduki duenen ni igo nintzen ordun han ta gero ya... ez dakit.

1.3. Eskolan gazteleraz jarduteagatik lotsatu

- **Hizlaria(k):** Atxa Arteagoitia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-024/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Carmen Mojarekin eskolan bizi izandako pasadizo bat kontatzen du Rosariok. Nahiz eta gazteleraz ongi moldatu, lotsatu egiten zen hitz egin behar zuen bakoitzean.

Transkripzioa

- Baie Carmen monja ta ni...
- Kontau, kontau.
- Eskola... eskolara ibili gintzen orduen... nik jakin niñun erdera hark baiño hobeto. Ondo batak be ez, ezta? Hark be ez ondo ta nik be ez. Ta, ha balientie, bakizu? Berbagaz be balienti da.
- Bai.
- Ta hark maketogaz berba itten zauen zera... erdera, ezta? Ta nik jakin neuna beiño hobeto bai behintzat, ni... lotsa, lotsa berba eitten erdera. Ta nik jakin niñun harek txarto esaten zauzela gauzak erdera e, hark baiño hobeto banekila esaten nik gauzak! Baiña ixilik, ez nekien ezer esaten ta! Porque beittu nire euskerie...
- Bai.
- Orduan bapez, orduen! Orduen ez genun jakin erdera bapez!
- Hori zenbet urtegaz?
- Eskolara ibiltze nintzen orduen... ba zenbet izengo zan? Sei zazpi zortzi urte.
- Bai.
- Holan, holan.
- Ordun, ikisi zendun zuk?
- Bai. Gero... Han bestikaz, eskolan danak erdera, danak erdera han eskolan... Ze eskolan dana erdera berba itten zan e. Han be, San Migelen...Maketo asko bizi izan die hemen San Migelen beti, e! Bai. Euskaldunak ... baguaz baie... ostentzien dana... erdeldunek deuz, asko San Migelen, eskolan bere.
- Bai? Zuen zenboran be bai?
- Bai, bai, bai.
- Baie zuek baiño gehixau ez, ezta?
- Euskaldunek? Ez, ez erdaldunek baiño... Baie, erdaldunek... erdera eitten audien moduen, haiekaz, erdaldunekaz, erdera. Euskaldunek kontu askotan euskera, baie, erdaldunekaz erdera. Ta atrebiduk izin gintzen e, erdera jakin ez ta berba itten, nik isilik egon, ni isilik egoten nintzen.
- Zuk erderaz ondo jakin ta pentsau!
- Lotsixe iziten neben berba itten ta! Lotsa! Ni lotsa berba itten erdera!

Isilik.

- [...] bere hankie sartu ta...

- Bai! Hark txarto esanak be, bardin itten auen!

1.4. Sorginak errekan

- **Hizlaria(k):** Atxa Arteagoitia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-024/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:03:27. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorginak errekan egoten zirela kontaktzen zietenez beldurtuta egoten ziren gauean.

Transkripzioa

- Lehengo kontuek eta holan, ba sorgiñen kontuek eta holango gauzek...

Han kontetan zien?

- Bai, kontetan, bai.

- Bai? Zu akordetan zara...

- Lehen be sorgiñek be, han erreka... han zen Luzarpe esaten otsien han errekan, ba sorgiñek dauzela ta. Oin ez dau sorgiñerik iñon.

- Luzarpen egon ziren sorgiñek?

- Luzarpen bai.

- A bai?

- Bai, esaten audien... esaten audien sorgiñak dauzela.

- Bai? Ta zer egiten eudien ba harek sorgiñek?

- Ba ez dakit, sorgiñek dauzela han ta igual gauetan ba bildura harantza sorgiñek deuzela ta.

- A bai e?

- Bai... oin ez dau sorgiñik iñon.

- Ta ordun zuk ez dakizuz holango sorgiñen kontuek holan?

- Ez, ez, ez.

- Ez zien kontetan han etxien?

- Ez, ez, ez. Han San Martin be horregeittik ipinitte han ermittie horregeitik izen behar dau holan mendixetan altuetan ermittak, sorgiñek edo kenduteko. Baiña orain ba ez dauen moduen sorgiñik, ermittik be ez da bihar, klaro.

1.5. Umeak bildurtzeko lamien istorioak

- **Hizlaria(k):** Madariaga Etxeandia, Kalixta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-038/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

- **Laburpena:** Aitonak era amonak kontaktzen zizkieten laminekin kontuak. Beldurrez egoten ziren, negar egiten bazuten bila joango zitzaizela esanez. Laminak gaez irteten ziren eta sorginak bezalakoak ziren.

Transkripzioa

- Ta zuek ez dosus entzun lamiñak eta...
- Holango lamiña kontuek eta esaten geuzen ooi! Gurien amonak eta! Amandrek esaten gintzen, amandrek eta guri aitteittek hori kontu... kontetan geuzen lamian kontuek eta... oi zela urteten dotzieren lamiñak eta ez dakit zer... Bildurrek hemen, bildur bet ematen osten! Eta igual usaitten gendun'e... igual umiek izenda orduen, igual "lamiñak urtengo dotzue e! Lamiak urtengo otsue negarra iten bozue!"
- Ta zer zien ba, lamiñek?
- Nik ez dakit ba, lamiñek urteiten... Kandida! Lamiña zelan [...] ?
- Lamiñak?
- Lamiñak.
- Argixegaz edo, kandelan bategaz edo esaten urteiten deula... gusurre! [...]
- Izituta, klaro, piztuta.
- Lamiñek orduen, sorgiñen modukoak zien, ezta?
- Sorgiñek, bai, sorgiñek esaten euren. Lamiñak esaten otzieren eurik. Geubez urteiten deurenak lamiñak, billur betegaz hemetik...
- Ba ipiñi hori, kalabazak eta...
- Bai, hori esaten geuzen. Aittak eta ez hainbeste, ez, [...] baie amandrek eta aittuek "lamiñak urtengo dotzue ta!" "Bazuaz, kanpora bazuaz lamiñak urtengo dotzue e!" Urtekin arazteko!

1.6. Sakamantekasen beldur

- **Hizlaria(k):** Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-126/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lehen gaez irteteko beldurra izaten zuten, "Sakamantekas" ibiltzen zela eta. Behin ilundu ostean iturrira joan beharra izan zuten anaiak eta biek; gau-txoriren baten zaratarekin beldurtuta, arineketan itzuli ziren etxera.

Transkripzioa

- Ta oin, joe, jende asko bizi da ta hori, baie, lehen iturrira joateko be bildurrez, ezta?
- Joe hemen gaubez ibiltzeko bildurre, sakamantekas oten zin ta...
- Zer zan hori, sakamantekas?
- Sakamantekas esaten otsuen, ba ez dakit ba. Bildurre sartuteko sakamantekas egoten zela. Ta baten gure aite difuntuek beti ure ekarri beharra, afalduteko ure freskoa. Ta baten etortzen da zortzi eta erdietan

egoan afaltzeko ta, "ure ekarri dozu?" "ez" bale ni [...], ta bale nebak, biok, bata farologaz ta bestie hierroagaz. Ta bagoaz iturrire, ta handik... farologaz ta zera, nire anakie hierroagaz, ta baten [...] ta han gautxorin bat "brrr" iten, han ta gure sokorro! Txalupe [...] baie zapatak lotu be ez, ganetik dena! Anaiak hierroa bota osten hankartera, sokorrotik! Ta hurroko eunien auzo guztiek a ver zer pasau zen!

2. Familia eta harremanak

2.1. Juanitaren arbasoak

- **Hizlaria(k)**: Arteta Larrea, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-004/008
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:17:42. **Bukatu**: 00:18:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Juanitaren ama bertakoa zen eta aitona Zornotzakoa zuen. Baina aita Artundagakoa zen, gainera, bertako abizena da Arteta.

Transkripzioa

- Orduan zuk... zuk... ze...ze euskara iten dozu? Zure aite ta ama...
- Bai
- Nongoak ziren?
- Bizkainoa, ezta?
- Zure ama zan...bueno Patxa ezta?
- Bai hemengoa, betikoa, hor...
- Ta Patxa hor jaio zan ta Patxaren gurasuak?
- Bai, ama be bai.
- Patxaren ama be hor jaio zen?
- Bai. Bai.
- Ta Patxaren aita?
- Patxaren aita izin zen Zornotzakoa. Zornotzakoa izin zen.
- Bai, bai, badakit bai.
- Zornotzakoa izin zen aita.
- Ta zure aita?
- Nire aita Artundagakoa.
- Artundagakoa. Arteta da hori ezta?
- Arteta, Arteta bai. Bai.
- Ta bere aite ta ama be bai? Hangoak ziren, badakizu? Zure aiten aite ta ama.
- Izingo zen, ba, bai.
- Han daukiez sustraiek edo...
- Bai, bai. Artundaga, bai.

2.2. Zornotzarrei barre egiten zieten gernikarrek

- **Hizlaria(k)**: Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-011/008
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:18:30

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Ferminekin lanean jarduten zuten Zornotzarrei gernikarrek barre egiten zieten gogoratzen du.

Transkripzioa

- Zornotzen esaten deutsut.
- Nik berriz, Zorrontzan beti.
- Bai, bai, bai.
- Hango jentik holan esaten dau e, Zorrontza.
- Zorrontza, Zorrontza.
- Nik beti entzun dot Zorrontza.
- Es que egiten da Zornotza... holan...
- Bai baie... Zorrontza. Guk beti.
- Gugez egon zan Gernikeko bat, lanean hemen Basconian, ta Zornotzako beste bat, ta Gernikekoak esaten otsan "Zorrontzara jan bedarra, guk euskera jan parra-parra".
- Badakizue, hori, zera... iten zan ta.
- Baie Zorrontza esaten otsen beti. Ni gero, aite difuntuen eta honan zerana ta horrik Zornotzako aititek izan ziren Zornotzakoak, Larreak dire...gure Larreatarrak dire Zornotzakoak. Ta beti Zorrontza.

2.3. Aitona Zornotzakoak

- **Hizlaria(k):** Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-011/009
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Larrea abizena Zornotzatik datorrela kontatzen du Ferminek. Aitona zuen bertakoa baina Basaurira ezkondu zela dio.

Transkripzioa

- Ba zuen familikoak, zuk Larrea apellidue dekozu ezta?
- Bai.
- Ta hori nondik dator?
- Zornotzatik.
- A Zornotzatik?
- Zornotzatik... Arizera etorri zen ala?
- Bai. Zornotzatik ekarri euskun aitek... hona aitite gure... aitite...
- Bai, ta Basaurira ezkondu zen.
- Ta zure aite jaio, nun jaio zan?
- Palazioan [...] Pascual ere...
- Bai.
- Bai euskera, hemengoa eukingo aurien ezta?
- Bai, bai.
- Aititek igual gehiago Zornotzako euskerie.
- Ez, baie nork jakin e? Ez dau...

2.4. San Migeletik kanpo denbora asko

- **Hizlaria(k):** Atxa Ozerin, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-017/006
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Nahiz eta bertara ezkondu, San Migeletik kanpora denbora asko igaro duela kontatzen du. Bilbon eman zituen 15 urte ezkondu aurretik.

Transkripzioa

- Bueno zuk igual hango kontue apur bet...
- Ez nik ama... gazterik urten ta gero gazteri guztien ba... Bilbon, zer?
- Bai, bai, bai.
- Gauza asko.
- Bilbon hamabost urte emon zendun e?
- Bai. Ezkondu baino lehenotik.
- Ze lekuten ba Bilbon?
- Ni kale Principen. Tripan. Kale Principen.
- Bai, bai. Ta gero hona biribiltan ezta?
- Ezkondu San Migelera.
- A ezkondu eta San Migelera, joe.
- Hainbeste urte egiña han, ta gero ba San Migelera, ta gero hau etxean apunta netzenian ta hainbeste urte ez euren emon... hamabi urte edo. Ezkon barik in gendun ta [...] eduki genduzen lau ume. Hau txikerra hemen jaioa da.
- Bai, bai, bai.
- Josu.

2.5. Baserritik Bilbora

- **Hizlaria(k):** Atxa Ozerin, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-017/011
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:25:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Baserrian baratzea baino ez zuten. Aitak, Euskaldunan lan egiten zuenez Bilbora joan behar izan zuen gaztetan eta ondorioz, ez zuen baserrian lan handiegirik egiteko aukerarik izan. Bilbon bidezka baserrian bizitzea baino nahiago zuen. Gaur egun, nahiago du Basauri ordea; gaztetan Bilboko zaratak ez omen zion eragozten.

Transkripzioa

- Ordun han, baserriko bizimoduez zu akordetan zara? Zer egiten zenuten eta hori?
- Guk ez. Guk ez dogu ein. Baserria... bai baserri uzena bai baie ez dogu eduki... ortu txiker bat, ortu txiker bat etxe ondoan, eta bestean eduki gendun ba frontera esaten gendunean, Ibarguen.

- Bai, Ibarguen bai.

- Haregaz. Ta gero aitte biharrian euskaldunan.

- Euskaldunan, Bilbon? Ta orduen zu ez zautz ibilita ortuen beharrean.

- Hamalau urte, hamabost eitteko Bilbora joan nintzen,

- Karo.

- Han Bilbon ez dau hortako astirik.

- Ta gustorago... hobeto non bizi izin zara zu? San Migelen, Bilbon, hemen, bietan...

- Ni Bilbon gustona. Danean ondo baia Bilbon zerak esan osten behin batek "oi en Bilbao aquel ruido a coche" nik asmau bere ez nun eitten.

- Ez?

- Ta trenbidia eduki gendun han Portugeletoko estazio... trenea.

- Bai.

- Ba pare-parean, baie entzun bez. Noz [...]hola txarra izatuz gero, noiz [...], baie ondo egonez gero gaztetan nork entzun?

- Bai, bai.

- Ta ordun zuk gurago igual Bilboko bizimodue?

- Ni bilbon gustora, bai, ni han ederra! Pozik eon naz hemen bere bai! Orain aukera ona zera izingo da...

- Ta zer deko Bilbo holan gustetako?

- A ba nik ez dakit zer dekon baie nitzat ni askotan eondu naz [...].

- Ta orain trankillago Basaurin, ezta?

- Hori bai, bai.

- Zarata gitxiau ta holan.

- Gaztetan ez da umetan ez zaratarik ez ezer. Gero bai, gero zahartzaroan ta ez dozule lo in edo zeuzer...

- Jo ba hemeko partien ez dao holan zarata handirik be, ezta?

- Zaratarik... gauza bat be ez da aditzen.

2.6. Txikitan ez zekien gaztelera

- **Hizlaria(k):** Lejarzegi Lauzirika, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-021/002
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:01:07. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Etxerre auzora ezkondu zen Maria. Bertako kuartelera joaten ziren gazteek ez omen zuten gaztelera jakiten. Maria zazpi urterekin hasi zen eskolan eta garai hartan berak ere ez zekien gaztelera hitz egiten. Alaba zaharrena zenez, baserrian lanean geratu behar izaten zuen askotan eta ez zen eskolara egunero joaten.

Transkripzioa

- Zergeittik ez deu itten euskera bat ez... horko euskerie? Dautz... nik Etxerren bizi nintzen, eta gero soldaduk hor zien, kuartela ez dakit ezetu dozun... ezetu zendun...

- Bai.

- Eta horra etorten... etorri zien mutilek ez dakixela erdera ezebez,

eskolarik be ez, ta hor ikasi eurien.

- Bai, e?

- Orduen hor zien... ba soloak eta euki ittuzan, eta han biharra itten eurien ta gero eskola emoten otsien, mutilek pozik! Ez zien egongo ba! Ez eurien jakin ezebez ta! Neuk bere, erdera hasta... zazpi urtera arte eskolara joan orduen ez nendun jakin, erdera esaten. Ezebez, ez ez hori, ez hau! Nada, ezebez! Ez nendu jakin, dana euskera!

- Zazpi urtera arte, e?

- Klaro, hama... bizi nintzanean, Artunduaga baiño etxe bat... [...] ba han. Ta nik ya urten gure nendun, basarrien han eon nintzen, etxien zazpi gintzen.

- Bai, bai.

- Ta zarrena nau, ta nautzako biharra amak, ta eskolara sarri, eskolara gaur joan ta biher ez ta... eskolarik be ez nun ikesi asko ze, eskolara joan in behar da! Ezta... ez badakizu erdera, asko galdutendozu eskolie, ze ordun zera ta...

- Bai, ta eskolie dana erderaz zan ezta? Euskeraz...

- Ezebez. Orduen ezebez.

2.7. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Zabala Bilbao, Madalena; Zabala Bilbao, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-127/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Antzinako bizimodua. Txirikiletan edo "Tres navíos en el mar" jolasean ibiltzen ziren olgetan. Neskatilatan soroan lanean zebiltzanei merienda edo afaria eramaten zieten eta bertatik jaten zuten denek. Kanpotik etortzen ziren emakumeak arto-lanera.

Transkripzioa

-Jon: nola iten zan hemen, baserriko bizimodue, ze guk ez dogu ezetuten.

- Madalena: olgetan, txirikileta ta, tres navios en el mar..

- Maria: ta afarixe iminten zera, jentiek... zera, ba artoakaz sailetan, ta gu meriendixe han.

- Madalena: solora afarixe.

- Maria: dana han han, dana.

- Madalena: dana imini zera ta danok, atara zera ta danok hara, koilarie bete.

- Maria: patatak eta makaillaoa ta...

- Madalena: piperrak etxeakoak eta [...] etxekoa...

- Maria: bai, ta jente asko, han andrak, sailetan.

- Madalena: sailetan, ba artoak. Artoak sailetan ta holan.

- Jon: nor, auzoko guztixek egoten ziren?

- Madalena: auzokoak ez, kanpokoak, ba andrak, bueno ba hor. "Etorriko zara astegunien ba sailetan artaburuek? " ba ala! Sailetan, ala! Imini pañolu bet, buruen eguzkie kenduteko ta... ala! Danok han.

3. Euskara

3.1. Gurasoekin euskaraz

- **Hizlaria(k):** Santamaria Elorriaga, Klara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-010/002
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:02:18. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gurasoek euskaraz hitz egiten zioten. Gurasoak bizi ziren bitartean jarioetasun handia zuela dio baina, hauek hil zirenetik, ez du euskaraz hitz egiten.

Transkripzioa

- Nire aitek egiten eben euskeraz guztiz ondo e.
- Bai?
- Bai. Guztiz ondo nire aitak, ta nire amak be bai. Baiña amak...hil jatan niri gaztetarik.
- Bai.
- Ni gazte... hamazazpi urte eduki nenduzen ama hil zanin. Ta gero aitek erdaldundute biek. Bakizu, gizonak ez dire... egoten zareten etxean.
- Karo.
- Ta hortik.
- Amak jakin behar dau, ezta?
- Amak, amak jakin behar dau. Printzipalena da ama, amak ez badaki...

3.2. Txikitatik lagunekin euskaraz

- **Hizlaria(k):** Santamaria Elorriaga, Klara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-010/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:22:23. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Baserrira bisitan joaten ziren lagunekin euskaraz hitz egin izan du txikitatik.

Transkripzioa

- Baia zu jaio Morgan jaio zinen?
- Morgan jaiotakua, bai.
- Ta... aite ta ama hangoak zien ala?
- Aite Zeanurikoa. Eta ama Morgakoa da. Bai, ama ta aitita Morgakoak. Elorriaga dekou guk apellidue. Morgakoak.
- Bai, bai, bai.
- Morgakoa, ta Uribe be bai, Morgakoak gara gu. Baserri baten bizi nintzen, baserri baten... bai badakizu, aitite hil jakon guri...
- Bai.
- Gu gaztetarik. Ta gure aite izen zan... marinoa izen zan gure aita,

marinoa, ta aititek be orduen... baiño baserria ez zan izen gurea e.

- Bai, bai.

- Ez. Ez ez zan izen. Aitite... San Migel, hona etorri gintzen bizitzera, San Migel de Basaurire.

- Ta zergaitik ba hona?

- Ba etorri gintzen horra, bakizu, gustetzen dakona aitteri ta amari hori... ze euskera iten zalako apurtxu bet. Basaurin berton ez dogu gure izan bizi, ez, baserri batara guro zaurien etorri.

- A bai e?

- Eurek akostumbreta baserrien, eta gero aitte goiz joaten zan.

- Bai, bai, bai.

- Itsasoan ibili zen eta horregatik. Eta gu, txiki-txiki izen geinken moduen, ba urrunau egoteko. Ze basarri baten andra batek lau umegaz ze iten dau? Ezebez.

- Karo.

- Ze txikixek izin gintzen ta. Nerie zaharrena, baie harek ez zuen gure izen baserrien bizi. Ez zuen gure izin baserrian bizi.

- Ta hori baserria eginda egoan edo?

- Bai, bai, bai.

- Baserri asko gindugun soloan... beno soloan, asko. Ta behixek eta dana aukiten gindun.

- Alkilau in zenduen edo? Errentan edo?

- Errentan egon gintzen bai. Errentan. Geurie ez zan izan baserria.

- Bai.

- Ez, errentan eduki gendun.

3.3. Euskara gutxietsita zegoen

- **Hizlaria(k)**: Santamaria Elorriaga, Klara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-010/008
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:23:56. **Bukatu**: 00:25:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Txikitan, etxean bakarrik hitz egiten zuen euskaraz. Bizilagun askok euskara gutxiesten zutela kontatzen du eta ondorioz ez zieten seme-alabei beraien hizkuntza erakusten.

Transkripzioa

- Ordun zuk... euskera, ze euskera iten dozu gehiago? Igual gehiago ingo dozu Morgakoa edo...

- Euskerie nik?

- Bai.

- Ba ointxe iten dot San Migelekoa iten dot, Morgakoa be bai apurtxu bet e!

- Bai.

- Uste dot baietz.

- Ta zuk egin... txikitan iten zendun euskeraz?

- Etxian.

- Etxian bakarrik?

- Etxian bakarrik. Ze kalean gitxi egiten nuen euskera. San Migel, ez, ez, San Miguera etorri orduin egiten nuen San Migelen euskeraz, basarrian e,

lagunekaz egiten nuen.

- Hango lagunekaz, San Migeleko lagunekaz?

- Baia nire lagunegaz ez jakien euskera e, San Migelekoak, zeren, ez otsien egiten. Badakizu zer esaten bazen orduen, ze, zertako zan euskerie?

- Ya, karo.

- Askotan etxien. Orduan esaten otsien gure amak esaten otsien beran lagueri "zetako ez ostezu iten umieri euskeraz?" "zetako? euskeragaz ez goaz inora be ez, ta guk dakiguna ez dogu irakatsi behar umeari" esaten, zelako lastimie! Bikote... zelan e... Rafael deituten da, Baraiñano?

- Bai.

- Zera... gasolinera dekona, badakizu. Daben andrea, nere lagune, urtetan, beti urtetan gendun ta, Rafael [...] gure etxian egoten zan beti sartute bera, eta "hablanos euskera" harek ez zuen jakiten gitxi euskeraz, "tu todo tipo de euskera con esta e". Bera be gero hasi zan nobixia beranduago...

- Bai.

- Orain dagone beragaz. Ta berak gitxi iten eben, ta haren seme-alabak orain ez dakite euskeraz. Ta esaten dotsie amatxuri, beran alabari, "zetako ez diguzu irakatsi guri zuk dakizuna?" "Ba zetako?".

3.4. Basauri inguruko euskara

- **Hizlaria(k):** Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-011/006
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Ez du desberdintasun handirik ikusten inguruko herrietako euskarari dagokionez. Galdakaon egiten omen zen euskara gehien Fermin gazteagoa zenean.

Transkripzioa

- Zure euskerie nungua da? Zuk ze euskera iten dozu?

- Nik... etxien, hamen, etxean entzunekua.

- Bai. Etxien ezta? Zure... aite ta amari?

- A bai, bai, etxien.

- Eta aite ta ama nunguak ziren?

- Aite ba palaziokoa... Arizeko palaziokoa, ta ama Etxeberrikoa, Kukullagakoa.

- Kukullaga?

- Kukullagakoa. Ba zure...

- Tio bat daukot.

- Carlos. Bai. Neure aman lehengusue.

- A bai?

- Carlos, bai, nik entzuna daukot... Han dago oindiño basarrixe, ezta?

- Baserrie han dau, zera. Carlos bizi den lekuen teilatue ta... nire aman... bizi zen lekuen teilatuek in otsien. Zeuzer [...].

- Gurasoak be bi bakarrik ozan?

- Bai. Han ipinten dau, letreru baten, Kukullaga.

- Kukullaga.

- Kamiñoaz terrenoan dauena da [...] bizi zauena [...].

- Ta zuk ze, euskeran diferentziarik ikusten dozu Etxerbarritik Arizera

hizkera aldetik edo?

- Ez, ez, ez. Hamen... hemen inguruen ez. Ya urteten dozu Txorierritik ta horti bai. Hortik ya sartuten de apurtxu bet... nik eduki nendun iziko bat Zamudiokoa, ta lehenengotan... zela esango dotzuten... dasbardiñe.

- Bai?

- Dasbardiñe. Etortzen hemen, Galdakao [...] Etxebarri ta honik, inguru... gu ibiltzen garen lekuen dana berdin dau, bardin-bardin.

- Bardin-bardin. Hemen ingurukoa bardin-bardin. Ta gero horko Zeberio aldetik ta hortik, ta Zornotzan be, hemengo modukoa, dana bardiñe. Igual gauzetxun bat igual ez du eukin baie...

- Ta gehio non iten zan euskeraz hamen inguruko herrixetan?

- Hemen Galdakaon iten zan gehiena. Galdakaon iten zan dena.

3.5. Kalean ezin zen euskara erabili

- **Hizlaria(k):** Ibarretxe Ibarretxe, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-015/009
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Gaztea zela, kalean euskaraz hitz egitearren arreta deitzeak apurka hitz egiteari uztera bultzatu izan zuela dio.

Transkripzioa

- Bueno guk goiantz txikerrana izenda orduen be kasi berbetan be itzi ez.

- Bai, hemen... hemen edo, autobusen edo tranbien edo joan ta, atenziñoa...

- Bai e?

- Bai. Ta nok, nok...

- Igual jentie... maketoak edo, besteik...

- Bai, e?

- Eurek esan ta... "zu, a ver, hablar en castellano" ta...

- Bai, e? Holango gauzek?

- Klaro...

- Holan galdu de... holan galdu ta...

3.6. Bizkotxalden euskara gutxi

- **Hizlaria(k):** Zamakona Etxebarria, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-018/002
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:03:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gurasoak Bediakoak ziren arren, Maria eta bere anai-arrebak Bizkotxalden jaio ziren. Ez dauka euskaraz hitz egiteko

ohiturarik. Garai batean ere gutxi egiten zela dio eta senideak gaztelera ikastera eure etxera joaten zirela gogoratzen du.

Transkripzioa

- Zure guresuek...
- Bai.
- Bizkotzaldekoak dire?
- Ez, ez.
- Nunguak dire?
- Kolaziñoak. Biek, aite ta ama?
- Biek, bai.
- Biek, ederto.
- Bai.
- Ordun zuk... zure euskerie zer da Kolaziñoa gehixeu edo?
- Ez. Hemen jaiota naz.
- A bai?
- Hemen gu hemen jaio gara. Baie [...] tokiz.
- Bai, bai, bai. Han Bizkotzaldeko baserrixe?
- Bai, bai, bai. Bai.
- Han, bai ta gero aite ta ama etorri ziren Kolaziñotik hona?
- Bai. Bai, bai. Alaba bategaz.
- Beharrin edo holan ezta?
- Bai, bai. Bai, laborantzan, laborantzan hor.
- Bai.
- Hor elexa dakizu non dauen elexa?
- Bai.
- Ba hor. Hor dago [...] da.
- Bai, bai bai.
- Ta ordun zuek euskeraz ez duzue egiten ezta normalean?
- Ez, ez. Ez, ez, ez. Bueno [...] edo eiten dogt euskera baie holan torpe, torpe sano torpe.
- Bai.
- Torpe sano.
- Ya ahiztute dekozu ezta?
- Bai. Bai, bai, itzite, itzite. Bai. Lehen euskera hemen euskera... josus! Erderaz ikisten etortzen ziren hona!
- Erderaz ikisten etortzen ziren?
- Erderaz ikisten! Kolaziñoa senidek erderaz ikisten etortzen ziran hona.
- Bai e?
- Halan da ze begittuzu ze euskera egon zan hemen...
- Bai, bai, bai.
- Hemen ez zegon euskerarik, oin... mutilen artian zanean esan osten [...].

3.7. Zabalatarren baserria

- **Hizlaria(k)**: Zabala Bilbao, Madalena; Zabala Bilbao, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-019/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:16:23. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Gurasoekin euskaraz hitz egiten zuten, gaztelera gutxi zekiten. Etxeko abizena betidanik Zabala izan zen eta baserrian bertan bizi izan dira.

Transkripzioa

- Ta zuek gurasoekaz eta euskeraz egiten zenuen orduan ezta?
- Klaro, euskeraz.
- Nogaz, norekin?
- Gurasuekaz.
- Bai, bai. Gurasuak bai, bai.
- Bai ezta?
- Euskeraz.
- Bixek ederto ingo euren, ezta?
- Jesus, Jesus.
- Igual erdera jakin be ez, ezta?
- Halan-halan.
- Bai?
- Halan-halan.
- Bai, bai.
- Ta ez dakizue orduen zenbat orte dekozan horrek baserriek, ezta?
- Ba deko... esto... Josebak deko.
- Urte asko-asko direz, ala?
- Jesus!
- Ehundaka urte igual, ezta?
- Setecientos edo!
- Bai?
- Izan bihar den gero, Izan bihar den. Bai.
- Bai bai.
- Zabala horko apellidue da?
- Bai.
- Betikua ezta?
- Betikua.
- Aite, ta aiten aite ta...
- Han eruen zaurien, gure... zera, aititek be bai.
- Aititek be bai ta.
- Han bizixek die.
- Bai, bai.

3.8. Gipuzkoan euskara desberdina

- **Hizlaria(k):** Lejarzegi Lauzirika, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-021/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Mariaren ustez aitak eta berak euskara bera egiten zuten. Durangoko euskararekin aldea ikusten du eta Gipuzkoako euskara ez duela ulertzen dio. Etxerrera Gipuzkoako gazte asko joaten ziren soldaduska egitera eta bertan entzuten zien euskaraz hitz egiten.

Transkripzioa

- Zuk ze euskera iten dozu, Artunduagako euskerie iten dozu?
- Hemeko euskeria, noz itten oin be zure moduen?
- Bai, bai.
- Baie zure aitek, Gernikako euskera ingo auen?
- Ba naure moduen, naure moduen.
- Bardin bardiñe zan zutzako?
- Bardin-bardin. Bardin.
- Bai, ezta?
- Bai, bardin. Da oin bera, Gerniken bere, ba han dekodaz nik bi lehengusiñak, ezta? Ta haik be geure moduen iten dabe. Durungon han diferentea, zera. San dotsutena, "juateko" "juen" esaten daurie.
- Bai bai bai.
- Juen.
- Baie dauz euskerak bereik ez diena entenditan, horti... Gipuzkuan.
- Bai? Ze euskera?
- Euskera... euskera bat ta bereik beste bat. [...] asko, distinto.
- Bai.
- Gipuzkoano. [...] igual antza barik.
- Bai, bai, bai.
- Bestalde berba itten de leku batzutan batera ta bestin beste betera.
- Bai, bai, egixe da bai.
- Hemen dauz... etortzen zin soldaduk.
- Bai. Etorren ziren Gipuzkoatik soldaduek?
- Bai. Hemen serbitan.
- Klaro. Ta ordun zuk ikusiko zendun, ez?
- Klaro.
- Diferente zala ta.
- Klaro, klaro. Jakiña euskera zela beiño gehiau ezebez. Baie horreik itten zin Gipuzkuano.
- Karo.
- [...] edo horkuak zien. Leku askotan ez dau oin bere eskolarik! E?
- Klaro.
- Ez dau ba eskolarik.
- Bai, bai.

3.9. San Migelen euskara galtzear

- **Hizlaria(k)**: Beti Abrisketa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-023/007
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Euskara galdu eta gaztelera ikasi beharko zutela pentsatzen zuten Bixentaren gurasoek. San Migelen euskara gutxi egiten zen Bixenta gazte zenean ordea. Gazte guztiek gaztelera hitz egiten zutela kontatzen du.

Transkripzioa

- Gurien etxien, ba gaztiek izengo gintzezan ordun, ba amak igual berba

itten euen erdera, ezta? [...] erdaraz gauzek esan eta... aittek esaten otsen... aite be Zeberixokoa euskaldun netogua, gure ama baiño, ezta? Esate eben... zegeitik esaten otsen... hemen San Migel inguruen euskera ez dela berba itten ondo, txapurriano dala hameko euskerie esaten zan ezta? T esate otsen amari "zuk eingo dozu euskera ahiztu ta erdera ikisi". Hori gertatzen da, badakizu, hemen beste hainbeste. Hemen beste hainbeste.

- San Migelen...

- San Migelen be ez da berba itten euskera asko e!

- Ez?

- Ez. Ni gaztixe nintzen orduen Lapatzen...

- Lapatzen ejakingo dozu ezta?

- Bai, ba.

- Lapatzen itten zan erdera.

- Bai.

- Ni gaztiek, ezta, gaztiek. Lehen euskera motz izin zen euskera berba ittie! "Jebos" ta esaten eurien! Euskera berba itten daunak! El ke mas el ke menos... erderaz izin ahalez geo berdin ahal, ba erdera itten giñun, ezta? Komo ke erdera ondo dau dakigun moduen, ezta?

- Ya.

- Ta euskera, puf, keba! Lotsa iziten zan euskera ittie, gebo esaten zan ta! Ta oin badakizu, dakienak aprobetxau.

- Bai.

- Dakinak aprobetxau.

- Beitu, oin dakinak bentaja.

- Bai. Klaro, klaro, ez da izingo ba?

- Claro que sí.

- Ta Fiñagan zu zenbat urtetan bizi izan zintzen ba?

- Ezkondu arte, ezkondu arte.

- Zu bizi izan zara han Fiñagan ezta?

- Ni Fiñagakoa naz.

- Han jaio ta...

- Bai, klaro.

3.10. 20 urterekin gazteleraz lagunekin

- **Hizlaria(k):** Beti Abrisketa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-023/011
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Hogeit urterekin gazteleraz ondo moldatzen zen. Lagun artean hitz egiten zuen gehien etxean euskaraz egiten jarraitzen zuelako.

Transkripzioa

- Hango jeitia, bai, ya [...] gora danak euskaldunek direz ez?

- Danak, danak.

- Euskaldunek danak. Oin ez asko, oin gu iñuzentik gara ta. Euskeraz in biher dogu... bueno... eske lehen e, lehen ez zan bizimodua euskeri, ta oin dabiz eudkerie apur bet dakinak. Baie lehen euskera, keba. Lehengo modie

izin zan erderie

- Bai.
- Erderie. Puf!
- Ta zuek be, neskatxak eta holan... ederaz iten zenduen?
- Erderaz, erderaz, keba.
- Noz hasi zintzen zu...
- Erderaz iten?
- Erderaz iten, bai. Nau, ya hogei urtegaz bai.
- Bai?
- Bai.
- Ta orduen...
- Lagunen artien, lagunekaz. Lagunekaz erdera.
- Bai, hantxe...
- Hango lagunekaz?
- Bai. Etxien euskera baie lagunekaz erdera.
- Bai?
- Karo. Gu izengo gintzen honek maketok baiño gitxiau ala? Gauz berbera.
- Eurek baiño gitxiau ez izeteagatik?
- Karo, gaur berbera.
- Ta bueno, ostantzien ba etxien beti eudkeraz, ezta?
- Etxien bai, etxien bai. Etxien euskera.
- Ta nok egiten euen hobeto zure etxien euskeraz, aitek ala...?
- Aittek. Aittek, aittek, Zeberiokoa zan ta...

3.11. Lantegian gazteleraz

- **Hizlaria(k)**: Arteta Ibarretxe, Jose Maria; Azkueta Landeta, Victoriano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-026/002
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:13:07. **Bukatu**: 00:13:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Artunduagan jaioa da, aita bezala. Lantegian gazteleraz hitz egiten zuenez, euskara ahazten joan zela kontatzen du.

Transkripzioa

- Zu hemen jaiota...?
- Bai, bai.
- Hemen jaiota zaut zu?
- Hementxen e jaiota, nire aite be bai.
- Ama... aman partetik?
- Aman partetik Arteta, Arteta.
- A bai?
- Ibarretxe, Ibarretxe.
- Zu zara orduen Arteta Ibarretxe?
- Bai, Arteta Ibarretxe.
- Ta ordun euskera, erdi ahiztute edo zer?
- Oin ba... es que gu fabriken dana erderaz, ta gu denpora gehixena fabriken emon dogu.
- Bai?
- Bai.
- Nik berrogeita bost urte in dodaz fabriken. Bai, bai.

3.12. Umetan euskara gutxi

- **Hizlaria(k)**: Llaguno Bilbao, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-033/006
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Umetan ez zuen euskaraz egiten San Migeleko umeekin. Gehienek ez zekiten hitz egiten eta ama eta auzoko batzuekin egiten zuen, zaharrekin.

Transkripzioa

- Ta zuk ordun, euskeraz egin izen duzu hor San Migelen? Sam Migeleko jentia gaz ta holan, umietan ta holan?
- Ez, ez, ez. Ez, ez, ez, ez, ez.
- Zuk dekozu...
- Horrek ez dabe jakin euskera dakixatela, netakixela euskeraz. Asi que pentsa eizu.
- Ez e?
- Bueno, jakin bai ze amagaz eiten neula lehen, ezta, baie eurekaz iñoiz be ez ez dot in, gehixenak ez dakiez. Gehixenak ez dakiz, ez dakiek euskeraz. Ta ni, bai.
- Ordun zuk amaz bakarrik in dozu?
- Amagaz ta auzoko bat daukou... bueno auzokoak batzuk, bastante. Bueno, auzokoak, jente zaharra.
- Hori.. hemengoak ala?
- Ez, ez, ez. San Migelen.
- Horrekaz iten zendun?
- Bai, bai, bai. Baie ya jente zaharra e. Nire amaman moduen [...]. San Migelen ez zan iten uste dot euskera, ta hemeti joaten bazara, [...] ta horti...
- Bai.
- Hor gehixenak dakiz euskeraz.

- Bai, bai, bai.
- Baie... guk beño txarrau. Guk beño txarrau iten dabe.
- Jende askok be deko horko partien euskera erdi ahiztuta...
- E, e! Ez eurien gaztetan ez eurien beti... ta ekin in behar hortako!
- Bai, bai.
- Neuk bere ya... batzutan ez... iten dot, e baie, iten dot.

3.13. Hiketan Bakion

- **Hizlaria(k)**: Llaguno Bilbao, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-033/007
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Hika hitz egiten Bakion ikasi zuen eta Bakioko senideekin hitz egiten zuen gehien. Euskaraz gazteleraz baino hobeto moldatzen zirela kontatzen du.

Transkripzioa

<p>- Zuk hiketan hik egiten dozu ezta? - Ba, ba, ba. - Ta hori non ikisi dozu ba? - Bakixon. - Bakixon egiten da hori? - Bai, bai. - Bai e? - Bai. - Pentse dot ezetz e. - Ez, ez, ez, ez. Hangoa da, hangua ta igual San Migelen bere zeuzer, bai, hiketan hik bai, zuk eta nik edo. - Hori egiten da orduen hiketan hik... - Bai, bai. Bai, bai. Seguro adem´s e. - Hango baserrikoak eta... - Baserriek eta herrikoak. - Bai, e? - Bai. Orain, bueno, herrixen orain kanpotarrak egongo da hor asko baie, bertakuak'e bertakoak danak dakiz euskeraz e. - Bai. - Bakixokoak e. - Ta egiten daube? - Bai. - Bai? - Bai, bai, bai, bai. - Lehengusu batzu dekodaz han eta euskeraz, erderaz baiño hobeto. - Bai e? - Bai, bai. Bai, bai. - Pasaten dana han, uda partien ta... - Bat orain Bermeora joan da bizitzen, bueno, tailler bat in bihar han berak eta... bai. Domektan eta, badakizu, nik domeketan esaten dot. - Bai, bai, bai. - Nik domekia. - Holan esaten da hemen. - E? - Honek dio... Ba, etortzen da Bakixora, joe, erderaz behin'e bota, euskeraz.</p>

3.14. Lanean gazteleraz asko

- **Hizlaria(k)**: Moja Elordui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-036/015
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:44:46. **Bukatu**: 00:45:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gazteleraz hitz egiten zuen Arizen. Paper-fabrikan batzuekin euskaraz egin arren, gazteleraz egiten zuen gehienbat.

Transkripzioa

- Ordun zuk... Arizen eta... han erderaz iten zendun ezta? Jentiaz, han euskerarik ez...
- Bai, bai, bai. Ez, ez, han erderaz, erderaz.
- Gero papelerara joan...
- Han papeleran bertan, han Zaratamoko batzukez euskeraz, ta bestikaz erderaz.
- Gero kanpoan ez zara ibili zu, ezta? Beste fabriketan...
- Ez, ez. Ni ibili naiz arotzen onduen etxetatik asko, urte askotan. Urte asko, asko. Osteien, beste fabrikarik ez da.

3.15. Etxean beti euskaraz

- **Hizlaria(k):** Madariaga Etxeandia, Kalixta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-038/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan gazteleraz soilik egiten zuen eta etxean beti dena euskaraz. Klean barre egiten zioten euskaraz hitz egiten zutelako.

Transkripzioa

- Gero badakizu, hemen eskolara joaten gintzanean ez zan eitten erderie beiño...
- Eta gero barre, maisuek bere erdeldunek danak, danak.
- Bai. Eskolan eitten genduzen ba erdera, maisu-maestrak eitten geuzen erdera, baie ez ziren berba erdi be ez erderarik e.
- Zuek beti in dozue etxien euskeraz, ezta?
- Berba erdi be ez erderarik e!
- Klaro.
- Eta gero egon da errepresio asko.
- Zer?
- Errepresio asko egon da. Kalian barre ta...
- Bai, bai, bai. Berba erdi be ez hemen erderarik e. Eskolan oinarriki maisu maistrak [...] Gure amak ez zuen jakin erderarik e!
- Ez e?
- Ez zuen jakin erderarik.
- Aitek bai ezta?
- Aittek ederto. Baie amak ez zuen jakin erderarik e.

3.16. Bilbo euskalduna

- **Hizlaria(k):** Madariaga Etxeandia, Kalixta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-038/008
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:21:27. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Kalixtaren ama Bilbora joaten zen esnea saltzen eta Kalixta ere lan horretan aritu izan zen. Bilbon gaztelerarik ez zela hitz egiten dio, bezero gehienak euskaldunak ziren. Astoarekin joaten zen Bilbora gaztetan.

Transkripzioa

- Gero, ba, berak esaten duna. Hamabi urtetik... hamabi urtekez hasi, eta Bilbora bere denpora guztixen. Esniekaz, handik, eta ba esniekaz eta bendejiaz. Baie berak esaten duna. Zelan ez zendun ikasi erderarika Bilbon beti... beti Bilbon sartute... Bilbon umetarik sartute! Beie ez zan eiten erderarik Bilbon!
- Karo.
- Ez?
- Nik nire bezerixa /bezeria/ nik eduki nenduzun bezerixa danak danak ziren euskaldunek! Danak euskaldunek!
- Bai e?
- Han iñogaz ez nendun barbarik eiten ba erdera. Danak euskaldunek!
- Zeu be ibili zintzen esniekaz eta holan ezta?
- Bai. Bai.
- Anitagaz ezta?
- Bai. Bai, ni Bilbora, ni ta horra.
- Biri bistara.
- Biri bistara, ni Bilbora.
- Zu Bilbora joaten zintzen?
- Bilbora. Baie, ni joan orduen Bilbora be, orduen be da euskaldunek gehienak e!
- Bai ezta?
- Euskaldunek gehienak. Gehienak euskaldunek e. Baie bata Arratiakua, bestie Mungixekua, bestie hangua, bestie San Monixokua... bestie horkua, danakaz euskera itten gendun. Danakaz.
- Ta zelan joaten zintzen ba, Bilbora, asto ganiien edo?
- Astoagaz, ta gero autobusien, ez dakit. Lehelengo astoagaz.
- Ta bide luzie ezta?
- Bide luzie, baie... bide luzie! Bide luzie! Kaminoan peajia kendu zigun ta!

3.17. Irakurri eta idatzi euskaraz

- **Hizlaria(k):** Madariaga Etxeandia, Kalixta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-038/014
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Etxean amak ez zekien irakurtzen, baina aitak asko irakurtzen zuen eta euskaraz idatzitako liburu batzuk zituzten etxean. Elizan beti dena euskaraz egiten zuten. Anaia Melillan egon zenean ere euskaraz idazten zuen etxera.

Transkripzioa

- Leidu gitxi iten da orduan.
- Bai.
- Zure aitak igual bai...

- Bai, gure amak ez zun leiduten, ez zuen jakin leiduten erdera. Eta zera, meza librua be euskera.

- Bai. Bai ezta?

- Bai. Eta ez zun jakin erdera errezetan be.

- Ez e?

- Dana euskera. Eta gurien aitte be euskera. Erdera're ez zuen jakin. Dana euskera. Eta guk, oin, klaro, ez dekoguz harek liburuek, baie eduki genduzen liburu... holango liburu adituenak. Eta dana euskera, dana euskera! Abandasek, gurie neba zaharrena, Melillan in jauen ba zertu ezta... zerbizixua in zauen ez dakit gerra denporan. Gerrie egon zan orduen Melillan. Eta harek eskribiduten euzen kartak, euskera! Euskera eskribiduten auzen harek kartak.

- Jente gitxik hori, e?

- Lehen eskribidu dena erderaz iten zan...

- Harek eskolan ez zun ikisi...harek...

- Hori zer da ba?

- Errosarioa.

- Aiten errosarioa itten zen ta apurtute ta oin horrek ez deu gure bota errosarixo, eta dana!

- Bota ez, ez, ez. Aittena zen?

- Bueno ba klaro.

- Orduan bere errezten da asko e?

- Bai, bai. Eta bueno ba harek eskolan ez zauen ikisi euskera kartarik eskribiduten e!

- Ez e? Berez ikasi euen edo?

- Eskolan han ez zan egon kartarik eskribiduterik euskera, baie harek ikisi eben euskera kartak eskribiduten.

- Bai, ezta?

-Melillatik hona kartak eskribidutean euskera botaten euzan.

- Bai, e? Eta horrek gorde iten dozuez ondiño?

- Ez dekou.

3.18. Etxean euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Urkiza Asua, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-041/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Senarraren eta amaren aldeko senide guztiak euskaldunak ziren. Etxean seme-alabak ere zazpi-zortzi urte bete arte euskaraz bizi ziren, baina eskolan irakasle erdaldunak izan zituzten eta euskara asko ahaztu dute.

Transkripzioa

- Ta zure gizone orduen euskaldune izengo zan ezta?

- Euskaldune, hemekoa. Hementxe bizi zen...gure... euskaldune gure gizonan aldeko danak euskaldunek.

- Euskaldunek ezta?

- Ta gure aman aldekoak be danak euskaldunek. Ta honeik ikisi ein euren, honek daki gehien, etxeakoak euskera. Bestidiei ahiztu.

- Bai, e?

- Zortzi bederatzi urtera arte jakin euren euskera, baie erdera maistri eta maisuk maketoak zien danak. Valladolidekoa zan maistrie. Baie gero ohitura euki dabez honeik, erdeldunek, bueno, apellidue ez zen apellidue, euskerazko apellidue eukin arren euskerarik bapez ez zakienak dauz asko dauz ta.

3.19. Basauriko euskararen galera

- **Hizlaria(k)**: Larrea Etxebarria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-044/007
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:24:12. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Karmen umea zenean auzoan denek euskaraz hitz egiten zuten. Herri inguruan kanpoko jendea ugaritu ahala, gero eta gutxiago egiten zela gogoratzen du Karmenek. Umetan ez zen askotan irten herritik eta gerrak eztanda egin zuenean, eskola eta erromeriak alde batera geratu zirela azaltzen du.

Transkripzioa

- Txikerra ziñanean, orduen, hemen iten zan euskeraz, auzoan da... holan danielen?
- Ikeragarri iten zan, dana euskeraz.
- Dana ezta?
- Zeanin... behien be bai? Hor bihen /behean/.
- Elorrion ta kanpoko jende asko zan.
- Noiz hasi zen?
- Hemen bai bere asko, kanpokoak be asko dira, jentia... Gu izan be ez, lehenau ez zan asko urteten behera ta! Hementxe, urten be ez.
- Lehen gitxi urteten zan ezta?
- Bapez. Hemeti... keba, iñora be ez. Sekula eraman be ez barraketa be ez... barrakak egoten ziren hor txokuan ta. Iñoiz be ez. Keba. Iñoiz be ez. Baten edo akordetan naz, eraman ostela amak. iñoiz be ez. Astien be ez gendun urteten apenas, astirik ez ta. Iñora joan be ez.
- Ta ez zintzen joaten erromerixetara edo?
- Bai, gero bai, baie... Txikerretan ez. Txikerretan iñora be ez.
- Ume txikiek ta... gustora ezta?
- Keba ez ziren joaten iñora ta, iñora joaten baziren igual San Antoniñora edo joaten ziren baie aguro izaten ziren. Eurek ba oiñez joaten ziren ta. Eurek joaten ziren han ba trenien ta gero Mallabiati oiñez joaten ziren. Lehenau ez zan egon oingo moduen autobusik eta konturik ez zan egon. Oiñez dena ta. Ordun ni...
- Ta zu Basagoitiko erromerira edo?
- Bai, ni gero bai. Baie, gero, gerrie be topa jakun gero, eskolatik be ba hamahiru urte, ba hamahiru-hamabi urte olango bat ta, ba ez zan klaserik eta. Ta gero ba hasi zen erreboluziñoa ta gero zati beten gerrie edo zera, ez zan egon eskolarik ta ezebez. Gero, gerrie pasan zan ordun ta dana triste zien, esan ezin, dana apurtute, dana ez zagon ezebez, dana...dana... dana zera, tristezie. Bateri bata falta jakola, bestie falta jakola ta... guri be ba zazpi urteko [...] eduki gendun mutil bet eta harek hemen bi hile in hauen, ze ez zan hamen bizi, hameti...

3.20. "Mamu" eta "sorgin" hitzen erabilera

- **Hizlaria(k)**: Moja Elordui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-048/002
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Josek ez du "mamu" hitza "fantasma" adierarekin erabiltzen, "tuntun" adierarekin baino. "Fantasma" esateko, ordea, "sorgin" hitzarekin lotzen du.

Transkripzioa

- Ta fantasma esaten dozu zuk, mamue esaten dozu? Mamue, mamue.
- Ez, ez.
- Mamue entzunde dekozu?
- Bai. Baie mamua... mamua da gauze bat, dana bata... ez dekona zerik, bere kapazidadeik holan gure antzera izateko, ez deko. Mamua da geuze bat esaten dune "eres tonta". Mamua, mamu bat.

- Bai, bai.
- Ta hori... lehen esan doguna sorgiñe, sorgiñen antzera da zuk esan dozune fantasma...
- Bai.
- Horrelako lehenoko sorgiñek, hori besterik ez. Ez dakit nola esan. Lehen, edozeinek igual ifinten eben zer, etxeko hoiko mantal bat edo zeozer, ta joaten zana [...] batara ta holan ipinite zerur tin ton, edo kalabaza bategaz trabiñek, justu horreik, ya hori fantasmas. Mamuak ez dekot argi.

3.21. "Euskara kalera urten behar dogu"

- **Hizlaria(k)**: Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-051/003
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:22:03. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena**: Ferminen iritziz, Eibarren euskararen egoera hobetu dadin, umeez kalean euren arten erabiltzea ezinbestekoa da.

Transkripzioa

- Baie kalera urten bar dogu, ostantzen ez dau balio. Ez badou urteiten kalera, kalean ez badau ume artien... ez dau...
- Baia gatza da kalean itea ze agian badaude lau edo bost ume eta haietako batek ez badaki... hori da...
- Klaro. gero, esaten dute "es falta de educación". Coño, es falta de educación, zer? Zer?
- Bai, hori da.
- Klaro. Ba ikisi, zergeittik ez dozu ikisten zuk?
- Bai, bai.
- Ta horregaiti galdu de hemen e, galdu de hori, zera, beti "kanpoko honek ez daki ta guazen iten oin erdera". Baie hor Gipuzkua aldien ta hortikan kendu auri euskerie, han erdaldune sartu bazan derrigor eukin zittuen euskeraz ze ezpabe geratuko zan bazterrien.
- Klaro, holan izin behar da.
- Es que holan izin behar da.

3.22. Etxean beti euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Larrea Etxebarria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-134/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Etxean beti euskaraz egiten zuten eta eskolara hasi zenean ez zekien gaztelaniaz. Andaluziatik etorria zen irakaslea.

Transkripzioa

- Ta euskeraz egiten zenduen lehen beti hemen?
- Beti euskeraz.
- Zu eskolara joan orduen?
- Ba eskolara joan orduen erderaz jakin bez. [...] eskolan edo. Hemendik iñora urten bez, ez da oingo moduen ba hara goaz ta bakaziñoak eta zera. Orduen ezebez, hementxe, etxien.
- Ta eskolara joan ta zer, maisuek erderaz egin ta zuk erderaz ulertu ez edo zer?
- Bai... han euskeraz in ez ze maistri andaluza izin zen ta, andaluza. Amagaz bera ibili zen ta gero ni, ta handi Andaluziatik etorrikoa izin zen ta. Asi que, ez gendun eukin euskera berba itteko, pentsau be ez.
- Jente gitxik egiten dau ya hemeko partien zuen moduen dana euskera?
- Euskera? Bai, gu ya gitxi ya, gitxi, erdera iten da gehixen be.

4. Aisia

4.1. San Migeleko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Ibarretxe Ibarretxe, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-015/016
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:45:16. **Bukatu**: 00:46:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Bizkaiko jai onenak omen ziren San Migelak. Erromeria egoten zela kontatzen du eta bakailaoa, legatza eta gisatua jateko aukera izaten zuten.

Transkripzioa

- Hemen San Migelen...
- Hemen jai onak... Bizkaiko onenak, jai onenak egitten zan San Migelen.
- Jai onenak? Bai, e? Ze iten zan ba?
- Joe, hemen... erromerie ona, eta, gero, txosnak, txosnak ere egoten zien, jateko. Jateko. Jateko.
- Jateko zergaitik esan dozu, jateko?
- Ba oin e ikisi, oin...
- Orain, ezta?
- Ikisi...
- Ikisi ala ikesi?
- Ikisi, bai.
- Ikisi.
- Jateko.
- Bai.
- Bai. Jateko oin... ikasi oin.
- Ta ikasi, ala ikesi?
- Ikisi oin.
- Bai.
- Jateko.
- Bai, bai, bai.
- Guk jateko, jateko. Jateko.
- Jateko ezta?

- Jateko. Jateko bai, baie mokadillok ez e? Hemen makailloa, [...] kazuela ederrak eta gixedue.

- Txosnetan?

- Txosnetan.

- Joe, oin... oingo txosnetan hori...

- Oingo txosnetan ez dau! Bokadilluk bakarrik dauz.

- Bai.

- Orduen...

- Oin bokadilloek saltxitxagaz eta oingo txarrikerixek, ezta?

- Orduen? Jaten ondo, bueno, jaten ondo, San Migelen.

- Bai, bai.

- Txosnetan e.

4.2. San Migelen erromerian

- **Hizlaria(k)**: Beti Abrisketa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-023/013
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:37:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: San Migeleko plazan erromeria egoten astebururo. Finagatik oinez joaten zela gogoratzen du.

Transkripzioa

- Lehen erromerixek eiten zien han, San Migelen?

- San Migelen, plazan.

- San Migeleko plazan?

- Plazan, klaro.

- Ta...

- Baie domeka guztitan ez e, agoston e.

- Etorten zintzien hona zuek?

- Bai. Ta horti, horti goiti, pasa zara lei horko aldatzati igon ta bajatu horti eiten giñun, mataderutik gorantza.

- Bai? Hor erromerixe?

- Bai, bai. Horti, horti etorten ginen. Fiñagati, ta horti bajatu. Ta horti igon.

- Bai, bai bai, bai.

- Horti. Mataderoti gora.

- Karo.

- Harek zelan deko izena, Hirubaratzeta edo?

- Bai, Hirubaratzeta.

- Hirubaratzeta ezta? Ha zer da? Ha zer da, Hirubaratzeta zer da?

- Zein hori?

- Kanpoti badago parte hura?

- Bai, bai.

- Ha zer da?

- Bai, bai.

- Hirubaratzeta.

- Hori lehengo berdie da ezta?

- Lehengo berdie bai.

4.3. Dantzan egin ahal izateko mutilek ordaindu egin behar

- **Hizlaria(k):** Beti Abrisketa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-023/015
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:38:18. **Bukatu:** 00:39:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeria zenean plazan dantzan ibiltzen ziren. Neskek ez bezala, mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egin ahal izateko.

Transkripzioa

- Ta jantzau iten zenduen eta holan hemen?
- Plazan, plazan.
- San Justun ezta?
- Bai San Justun.
- Gauza politxe izaten zan ala?
- Karo, hombre, oin biño hobeto! Ta lehen pagau itten zan, dantzan itteko pagau itten zan!
- Zuek pagau iten zenduen?
- Guk ez baie mutilek bai.
- A mutilek.
- Bai. Nexkak dantza eiten badau... neskak ez. Baie mutilegaz itten badozu, mutilek pagau iten aurien, ezta?
- Bai.
- Ta oin, joten deunari pagau iten otsie.
- Bai.
- Ba joteko musikie, ta jantzan dabiltzenak debalde eta oin ez dau inor jantzan, e? Oin ez dau iñor.
- Oin plazara ta holan...
- Keba! Plazie... plaza ez denen, ezta hori! Oin honek [...] itteoten han.
- Bai. Nire etxe ondoan badago bat.
- Bai.
- Kaiser, ez dakizuz?
- Bai, hori ba. Oin holangoak dauz. Oin holangoak.
- Bai, Ba oin kalien plazan gitxitxuago.
- Ai ze ederto lehen plazan, ederto.
- Bai.
- Ta gero San Migelen, Corpus egunien, Ascension, gero San Migelien be bai.
- Bai.
- San Migel izin zen egunian be bai.
- Hango plazan, ezta?
- Hango plazan.
- Ascensión, Corpus, San Migeles eta besterik ez...
- Han... elizen parian edo... eliza parian ala?
- Kamiño... kamiñoa doin ondo-ondoan. Kanposantuen beheratxuau.
- Bai.
- Han dauz arbolak eta, ez dau oin kioskorik ala?

5. Politika

5.1. Euskaraz egitearren denuntzia

- **Hizlaria(k):** Izagirre Ibarra, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-030/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:01:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Bilbotik bueltan izebarekin trenean euskaraz hitz egitearren denuntzia jarri zieten, gazteleraz egitera derrigortzeko. Maria Jesusek aita Zollokoa zuen eta ama Basaurikoa.

Transkripzioa

- Beragaz etorri biher zien, Arrigorriagaraiñoko ta euskeraz etortearren arrantzalekaz berbaz, denuntzia in oskuen. Esan oskuen "a ver si no podíamos hablar en español".

- Hori gerra denboran ala?

- Ez, ez, ez. Ya... ba... gerra denporan nik eduki neuazan hamaika urte. Ba hori izengo zan en el año cuarenta o cuarenta y tantos.

- Ta nork in otsien ba denuntzia?

- Ba berak interbentorrak.

- A bai?

- Bai, ta nik bostegun pagako nauen jakitearren erdera, ta ezin berba in. Ta izikoari ez dakit zenbet [...].

- Ta izekoak ez zeuen jakin erderaz orduen?

- Ez, ez, ez. Ta hil da jakin barik zer dan erdera.

- Ta nongoa izin zan ba zure familia?

- Zollokoa aita, ama hemekoa, hemen bertakoa, Fiñagakoa.

- Fiñagakoa? Hor Izagirre baserrikoa?

- Bai.

- Ta zu zara... zu Izagirre zara, ezta?

- Bai. Izagirre Ibarra.

- Zelan dekozu... baserrixe zelan deko ba zure aiten uzena?

- Izagirre. Es que neure... neriena da. Neriek in dotze bere izena ze neriena da baserrixe. Izin zan amana, baia amak emon otson seme zaharrenari.

Soltero dau, naugaz bizi da e, baie baserrixe berie da.

- Bai bai.

5.2. Euskaraz hitz egitearren jo

- **Hizlaria(k):** Izagirre Ibarra, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-030/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Maria Jesus zazpi urterekin hasi zen eskolan eta euskaraz egitearren jo egiten zuten. Orduan ikasi zuen gazteleraz hitz egiten.

Transkripzioa

- Zuk erdera ikisi, zenbat urtegaz ikisi zendun?

- Eskolara jun ta orduen. Ya... zazpi urtegaz edo holan hasi nintzen. Ta jo iten osten irakasliek. Ta Karmentxu Sangroniz, Ángeles Aberastui, ta Enkarna Meñaka [...] honek izin zien mandamasak, eskolakuak. Ta horrek, destripatorropes "hay que aprender en castellano", ta ez dakit zer. Ta justo-justo.

- Ta orduen [...] ikisi ezta?

- Ta nire seme zaharrenak, be, sei urtegaz joan zan eskolara erderaz ikisi barik. Ta Domingo maisua, horretaz akordaten zara? Ez zara akordaten ezta? Hor txaletan dauen lekuen hortxe bizi zan, planta bajan. Ta hark zurrau-zurrau itten auen ez zauenak jakin erdera. Hori... oin dekoz hogeita hemeretzi urte seme zaharrak.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Etxerre auzoa eta inguruko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Larrea Ereño, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-126/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Etxerre auzoa nolakoa zen eta lehen ze baserri zeuden azaltzen du.

Transkripzioa

- Zer Fermin, hau lehen ez zan izin holangua, ezta?

- Ez, antzirik be ez. Lehen baserrik egon zien emen, nire osteien baserriek egon ziren lehen. Oin danak... hau be burniye barrie da. Hau're mile bederautze hogeien edo hogeite bien iñe dagoz etxe hau e. Ostantzien bestela, egon zan gure baserrie zubien azpien. Ta gero egon zien beste baserri txikiaguak... Leandro bizi zen, Leandro aurrerau Zurrunbillo ta horreik, ta gero egon zien hiru, bizi zienan Bengoa baten, Urzelai beste baten ta Elorriaga bestiekin. Baserri baten hiru bizi zien, ta gero aurrerago egon zan Astigarragan, Astigarragan zera, etxea. Ta gero aurrerau, jun zen zera kazeteriena esaten ziñoen, han trenak barrerak ipini...

7. Baserria

7.1. Etxe inguruan soro handiak

- **Hizlaria(k)**: Urkiza Asua, Zezilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BSR-130/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** 28 urterekin joan zen Errekalde auzora eta bertan bizi izan da ordutik. Soro handiak ditu inguruetan, baina berak ez ei du lan handirik egiten. Errioxan alabari laguntzen dio soroko lanetan.

Transkripzioa

- Ni etorri nintzen hogeita zortzi urtegaz hona. Ta ordurik hona ez zauk kambiau ezerik e!
- Ez ezta?
- Oin pasioan ibiltzeko bai baie [...] haundie bizi ez.
- Ta hemen dekozuz soloak eta gauzek hemen dekozuz?
- Soloak hor ikusten dozun hori, buelta guzie. Han bastante urrintxu de. Soloak handixek, bihergiñek gitxi baie soloak handixek!
- Ta zuk iten dozu biherrik soloan?
- Gitxi, nik lora batzuk gobernau edo... ezebez! Erriojan iten dot bihar gehio hemen baiño.
- Bai? Etxea dekozuz...
- Han zera... alabak dauz han, soloan eureri gitxiau gustu izan dakie ta [...] asko.
- Bai, bai.
- Bueno asko asko ez, baie tira.

7.2. Lehengo bizimodua; ganadua eta soroak

- **Hizlaria(k):** Larrea Etxebarria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** BSR-134/001
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Lehen soroan zer ereiten zen: artoa, garia, indaba, ganaduarentzat erremolatxa, arbia... Behiek esne gutxiago ematen zuten lehen.

Transkripzioa

- Bizimodue eiten dozue zurok ala ze bizimodu dekozue hemen?
- Oin?
- Bai.
- Oin bai ortuan iten ta apur bet iten dogu baiño lehenoko moduen ez. Lehenau ba itten zan soroak zanak erein, artoa, garixe, eta inddabie, ta gero forrajie, ba ganaduntzako erremolatxak eta nola da? Nabua ta horreik ereiten genduzen. Arbia asko. Ta gero ba... lanak dauz be, bedarrak bai.
- Hoik bedarra bakarrik?
- Bedarra. Be bai egoten ziren behixek esne gitxikoak, [...] antzekoak, ganadue hemen gitxi lehen.

7.3. Ganaduaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Moja Elordui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon

- **Erref:** BSR-135/001
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ganaduaren inguruko azalpenak. Egunean hiru bider ematen dio jaten ganaduari. Pentsua, arbia, eta belarra edo alpapa. Gero azpiak atera.

Transkripzioa

- Zer, Jose, zer zabiz iten ba?
- Ba hemen nabil naboaz txikertan ba behientzaka... a ver emoten bajako jaten behieri.
- Egunero emoten etzezu?
- Egunero, bai, bai. Egunian hiru bider. Naboa dagonean hiru bider.
- Ta zer gehixau jaten daurie ba, naboaz aparte?
- Gero... janan... naboaz, lehenengo... lehenengo zera, pentsue goizetan. Pentsue. Ta gero, berdin naboaz, ta gero siko apur bet. Siko apur bet, bedarra, alfalfa apur bet edo holan. Gustetan jakie. Ta gero, etxekolanak in... azpik atera, sahatsak, holantxe gabiz, hemen'e...
- Bai, bai.
- Ta zer gehixau ein behar da behixekaz ondo gobernetako? Atara pasioan edo ze in behar da?
- Bai, bai. Behixek ba landara, goizean jaten emon, ta gero ba landara atara, atera behar jakoz... landara. Ta gero ba gobernau. Gero gabeko zera be bai, eduki behar da.
- Bai?
- Ta gero kuidadu apur be bai eduki behar da ze behixak di /dira/ egunaro-egunaro begitu behar jakie, a ver zer daukien. Hori notara moduen da, notarak bere janaxa badauko [...] in behar da, ta ganadua bardin.
- Ta gana txarra badaukixek... zer esne gitxiago emoten daure ala?
- Bai. Bai, esne gitxiu, ta eurok bere tristerik dauz, hori notara moduen. Nobera be... honazkiño gogo txarragaz eramateko respontza txarra, ganadua bardin-bardin, be oso txarto.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Semearekin euskaraz (BSR-003/002)

Pantxikek euskaraz ez du sarri egiten. Semeak ikastolan euskara ikasi zuen eta harekin egiteko ohitura du.

2. Auzoan euskara gutxi (BSR-003/004)

Auzoan dauden baserrien inguruan hitz egiten dute. Baserrietan oso jende gutxi bizi omen da gaur egun. Auzokoekin ez dute euskaraz egiteko aukera handiegirik, izan ere, Andaluziatik etorriak ere ba omen daude tartean.

3. Familian euskaraz lehen (BSR-003/005)

Pantxikeren aita bera bizi den baserrian jaioa zen. Ama, Arteagakoa. Senarraren jatorriaz dihardute. Bakarrik bizi dira seme biak eta alaba etxetik joan zirenetik. Seme-alabek etxean txikitan euskaraz hitz egiten zuten. Eskolan hasi zirenean gazteleraz egiten hasi ziren ordea eta ordutik hona gazteleraz hitz egiten dutela kontatzen du.

4. Euskara debekatuta (BSR-003/007)

Pantxikeren senarra kartzelan egon zen gerraostean. Garai hartan, Euskaraz hitz egitearren Gipuzkoako gizon bat desagertu omen zela ere kontatzen du. Euskara debekatuta zegoen eta beldurrak jota, jendeak hitz egiteari utzi zion.

5. Euskara indartzen (BSR-003/009)

Artunduagan antzina denek euskaraz egiten zutela gogoratzen dute. Kanpoko jende asko etorri eta gaztelera gailendu zela dio Pantxikek. Euskara indartzen dagoela ikusten du, umeak euskaraz hitz egiten entzutea polita dela dio.

6. Autobiaren eragina (BSR-003/013)

Baserrri inguruan gurdi-bidea zegoen, soro ugari eta arbolak ere izaten zituzten. Hala ere, autobidea egin zenetik baserrri asko desagertu ziren.

7. Landeta abizenaren jatorriaz (BSR-003/015)

Ildefonso Landeta Pantxikeren gizona da. Auzoan abizen horrekin jende asko omen dago. Auzokoen jatorriaren inguruan diharu Pantxikak. Landeta abizenaren jatorria Zaratamon egon daitekeelakoan dago Ildefonso.

8. Euskara gutxi Basaurin (BSR-004/002)

Juanitaren ustez, etxetik kanpo eta umeen aurrean ez zen euskaraz egiten. Herrian euskaldun gutxi egoteak dauka gazteen gaztelerarako joeraren errua. Hala ere, euskarazko hitz batzuk ere erabiltzen omen dituzte.

9. Euskara Basauri inguruan (BSR-004/004)

Galdakaon euskara gehiago entzuten zen Juanita eta Domingo gazteak zirenean. Basaurin beti kanpotarrak zeudela eta gaztelera gehiago egiten omen zen. Inguruko herrietako euskararen egoeraz hitz egiten dute. Juanitari "borona" deitzen zioten euskaraz hitz egitearren.

10. Euskara desberdinak (BSR-004/007)

Juanitak Galdakao eta Basauriko euskararen ez du desberdintasun handirik ikusten. Domingok, ordea, azpi-euskalkien mugak bereizten ditu.

11. Amonari berorika (BSR-004/010)

Hika, zuka eta berorika hitz egiten entzun izan omen du Juanitak. Amona, guraso eta abadeari berorika hitz egiten zioten.

12. Ura "aldabagiño" (BSR-004/012)

Uholdeak zirela eta erreka ura "aldabagiño" iritsi zela esaten zuen Juanitaren amak. 1985eko uholdeak bezalakorik ez zuten gogoratzen, baina Juanitaren amak beti zuen gogoan aurretik gertatutakoa, ez bizi izan arren.

13. Euskararen etorkizuna (BSR-004/014)

Domingok euskararen etorkizunean denek euskara berdina hitz egingo dutela uste du.

14. Esne saltzen gazteleraz (BSR-004/015)

Juanitak esne saltzen lan egiten zuen eta kanpoko jende askorekin izaten zuen harremana, baina beti gazteleraz hitz egiten zuen denekin.

15. Behiak baserrian (BSR-004/017)

Auzoan behiak esnerik ez zuenean, batak besteari laguntzen zioten. Juanitak behiekin loturiko anekdotak kontatzen ditu. Behiak iturrira ura edatera bakarrik joan eta bakoitza bere tokira bueltatzen omen ziren beti. Igandetan Basurto eta Begoñako feriara joan eta bertan erosi eta saltzen zituzten.

16. Baserrian animaliak (BSR-004/018)

Juanitak ez zuen inoiz behirik jetzi, amak edo aitak egiten zuten. Bestelako animaliak ere izaten zituzten, txerriak, usoak, oilaskoak, untxiak, eta abar. Seme-alabak jaio zirenean ez zuten ia behirik baserrian.

17. Auzoan giro ona (BSR-004/020)

Auzoko gizon denak onak omen ziren, arazoak beti konpontzen zituzten eta kontuak kontatzeko prest egoten ziren Juanitak dioenez. Parrandazale edo bromazale izan arren, gaztetan onak ziren denak.

18. Gaiztakeriak (BSR-009/003)

Ume bati aurpegia zikindu zioneko pasadizoa dakar gogora

19. Hegazkinak gainean (BSR-009/004)

Gerra garaian, trenetxeraren zatorrela bizi izandakoak kontatzen ditu Karmenek. Esnea saltzera trenetxeraren joaten zen Bilbora sarri eta, hegazkinek trenetxeraren jarraitzen zuenean, geratu eta tunelean ezkutatu behar izaten zutelako kontatzen du. Esne-marmitak zaintzen geratu zeneko pasadizoa kontatzen du.

20. Eskolan euskaraz egiten uzten zioten (BSR-010/004)

Euskara batua eta euskalkia erabiltzea polita deritzo baina, euskara batua ulertzea gehiago kostatzen zaiola aitortzen du. Eskolan ez zuen euskararik ikasi hala ere, txikitan Morgan bizi zela, jolastorduan euskaraz egitera bultzatzen zuten irakasleek, ulertu ez arren gustura entzuten baitzuten.

21. Morgatik Basaurira (BSR-010/005)

Aita Zeanurikoa zen eta ama Morgakoa. Baserrian bizi ziren baina aita itsasgizona zen. Baserria utzi eta Basaurira joan ziren bizitzera.

22. Baserriko abereak (BSR-011/002)

Baserria non zegoen kontatzen du eta bertan izaten zituzten abereen inguruan dihardu.

23. Etxean beti euskaraz (BSR-011/004)

Euskaraz hitz egitea baserritarren kontua zelakoan, hitz egiteari utzi zioten askok. Ferminek seme-alabei euskaraz hitz egin izan die txikitatik eta etxean euskaraz hitz egin izan dute beti. Kanean, hala ere, gaztelera hitz egiten omen dute.

24. Euskararen egoera gerraostean (BSR-011/005)

Inoiz ez diote seme-alabei euskaraz ez egiteko eskatu. Hala ere, gogoan du lagun batzuei gerraostean Bilbon euskaraz ezin zela hitz egin esan zietenekoa. Orozko aldean, eskolan euskaraz hitz egitearren umeak zigortzeko eratzunaren orde txapa bat erabiltzen zutela kontatzen du.

25. Euskalkia vs. Euskara batua (BSR-011/010)

Hitz asko berriak direla iruditzen zaio. Aitari bestelako hitzak entzuten zizkiola gogoratzen du, egun erabiltzen ez direnak. Euskara batua eta bizkaierari buruzko iritzia ematen du Ferminek.

26. "Ogie" edo "ogiye" (BSR-011/012)

Ferminek ogi esaten du gehienetan. Donostiara joan eta bertan gipuzkoarrekin gertatutako anekdota bat kontatzen du.

27. Mutilzahar eta neskazahar ugari (BSR-011/014)

Neskazahar eta mutilzahar asko omen zegoen Orozko eta Zeberio aldean. Baserritar asko zegoelako izan zitekeela iruditzen zaio Fermi. Lan asko egin behar izaten zenez, emakumeek ez omen zuten baserritararekin ezkondu nahi izaten.

28. Baserrian kanean baino gustorago (BSR-011/016)

Fermin baserrian eta kanean bizi izan da. Baserriko bizimodua politagoa iruditzen zaio. Gustura ibiltzen zen soroan lanean baina astuna dela iruditzen zaio.

29. Baserrian beti dago zeregina (BSR-011/017)

Urtaroaren arabera, lanak desberdinak izaten dira baserrian. Udaberrian, udan edo neguan hala ere beti dago zeregina baratze zein soroan. Sagarrak, melokotoiak, madariak eta mota askotako fruta-arbolak izan zituen Ferminek.

30. Gose garaian lapurrak baratzean (BSR-011/018)

Gaztea zela, sagarrak lapurtzeko ohitura handia izaten zuten umeek. Hain zuzen ere, 1940-41 urte bitartean gosete handia egon zela gogoratzen du. Jendea baratzerara lapurretara sartu eta zer esan ez zekiela geratzen zela dio Ferminek.

31. Txarriboda (BSR-011/019)

Baserrian egindako azken txarriboda Fermin ezkondu zen urtean izan omen zen. Txerriak osasunarentzat kaltegarriak zirela entzuten hasi zirenean utzi zioten txerria hiltzeari. Familia osoa biltzen zela gogoan dauka eta gustura aritzen zela kontatzen du Ferminek.

32. Umetako jolasak (BSR-011/020)

Kaniketan, futboleak eta bestelako jolasetan ibiltzen zen Fermin umetan. Gaur egun, gehienak galduta daudela iruditzen zaio naiz eta neskak sokasaltoan aldika ikusten dituen.

33. Kanpotar asko lanera (BSR-014/002)

Lantegiek eta trenak kanpoko jende ugari etortzea ahalbidetu zuela iruditzen zaio Gabinori.

34. Euskara galtzen (BSR-015/002)

Marianok euskara "txarra" egiten duela dio. Aitak euskaraz ongi egiten zuen arren, eta anai-arrebek ahaztu eta gutxi erabiltzen dutela dio. Marianoren emazteak ere badaki euskaraz baina ez daukate hitz egiteko ohiturarik.

35. Txikitatik Arteagan (BSR-015/006)

Ama Lapatzakoa zen eta aita Arteagakoa. 66 urte zituen Marianok elkarrizketa egin ziotenean eta baserriko lanei anai-arrebekin batera aurre egiten diela kontatzen du.

36. Euskara galtzear San Migelen (BSR-015/007)

San Migelen euskara galdu dela uste du Marianok. Galdakaotik Gipuzkoa aldera gehiago erabiltzen dela dio. Bermeoko euskara gaztelerekin gehiegi nahasten dutelako iruditzen zaio txarra.

37. Garia entregatu beharra (BSR-015/011)

Fabrikaz bete aurretik baserri eta soro ugari omen zegoen Arteagan. Gerra garaian, uztaren zati handi bat "entregatu" egin behar izaten zenez, gerraostera arte ezin izan zioten garia ereiteari utzi.

38. Iburguenen jaioa (BSR-017/002)

Mirenen aita Audio jaio zen arren Iburguenara joan zen txikitari. Miren Iburguenen jaioa da.

39. Bilbon bizi zen gerra garaian (BSR-017/013)

Gerra garaian Bilbon bizi zen. Sirenak eta kanpaiak gogoan ditu. Goserik ez zuela pasa kontatzen du. Garai gogorrenetan, Karrantzara joan zen beldurraren eraginez. Zortzi egun pasa zituen bertan.

40. Euskara gehiago umea zela (BSR-017/017)

Hitanoa ez du gogoratzen. Umetan, gaztelerezko hitzak erabiltzeagatik errieta egiten omen zien aitak. Euskara batua ulertzeko zailtasunak izan arren, arreta jartzen badu, ulertzeko arazorik ez duela dio.

41. Galdakaora neskame (BSR-018/003)

Umetan Galdakaora joan zen neskame. Senarra bertakoa eta euskalduna izan arren, ez zuten euskaraz egiten. Gurasoek euskaraz egiten zuten arren seme-alabek gaztelerez egiten zutelako kontatzen du Mirenek.

42. Artunduagan jaioa (BSR-021/004)

Maria Artunduagatik Etxerrera ezkondu zen. Ama Artunduagakoa zuen eta aita Gernika aldekoa, Ibarrurikoa (gaur egun Muxika udalerriko herria da).

43. Euskara Batua ulertu ezinda (BSR-023/002)

Euskara Batua ez omen du ulertzen. Bizkaierak luzaroan iraun dezan lan egin behar dela dio. Euskara Batua gipuzkerarekin lotzen du, telebistan entzuten duenaren erdia ez omen du ulertzen.

44. Euskaraz jarduteko aukerarik ez zegoen Basaurin (BSR-023/005)

Bixentak txikitan euskaraz hitz egiten zuen arren, Basaurin gazteleraz egiteko ohitura handia omen zegoen. Lekeitiora joaten zenean egiten omen zuen euskaraz. Kanpotar asko zegoenez, euskaraz aritzeko aukerarik ez zegoen Basaurin.

45. Hitanoa San Migelen galduta (BSR-023/017)

Aitak hika egiten zuen lagunekin Zeberion, baina amak zuka egiten zuen beti. Gaztea zela, emakume zein gizonezkoek egiten zuten hika. Ia euskaraz hitz egiten ez zuen arren, berak hika egiten jarraitzen zuela kontatzen du.

46. Gerra garaian ere euskara gogoan (BSR-026/004)

Gerra denboran eta aurretik, Bilbon egin zuen Juanak lan. Euskaraz hitz egitea debekatu zuten arren, berak ez zuen ahaztu.

47. "Egun handia" ala domeka? (BSR-026/006)

Victorianok gerra garaian bizi izandako pasadizo bat kontatzen du. Lesakan igandeari "egun handia" deitzen ziotelako nahastuta ibili zela dio.

48. Soldadutza eta gerra garaian herritik kanpora (BSR-026/008)

Victorianok soldadutzako lehen hiru hilabeteak Iruñean egin zituen eta jarraian Kordobara bidali zuten. Gerra bukatu ondoren hiru urte pasa zituen Valentzian.

49. Zeberion "aitue" esaten zitzaion aitonari (BSR-026/009)

Nahiz eta Juanak ilobei euskara irakatsi zien, gazteleraz hitz egiten jarraitzen dute hauek. Zeberion "aitue" esaten zela dio Juanak.

50. Kanpotarren eraginez euskara galtzen joan zen (BSR-026/011)

Fabrikak handitu eta kanpoko jende asko etortzearen eraginez erdaldundu zen herria Jose Mariren ustez. Eskolan, nahiz eta euskaldunak izan, gazteleraz ikasi behar izaten zuten eta irakasleak ere erdaldunak izaten ziren normalean.

51. Euskara desberdinak (BSR-030/004)

Maria Jesusek amaren euskara hitz egiten du eta aitak Zolloko euskara hitz egiten zuenean, desberdintasuna ikusten zuen txikitan.

52. Bilbon esnea saltzen (BSR-030/005)

Maria Jesusen amonak astoan edo zaldian esnea saltzen zuen Bilbon. Bere ama, ordea, autobusean joaten zen herritik. Astoa non uzten zuten azaltzen du. Zortzi urterekin hasi zen esnea saltzen eta garai horretan euskara ikastearren bikote bat baserrira lanera joan zela gogoratzen du.

53. Inguruko herriekin desberdintasunak (BSR-030/007)

Maria Jesusen senarra Zaratamokoa zen. Euskaraz egiten zuen dena eta ez zuen desberdintasun handirik ikusten beraren eta senarraren hizkeren artean. Galdakaokoak harroak zirela kontatzen du. Garai bateko ezizenak aipatzen ditu.

54. Euskara asko etxean (BSR-030/010)

Maria Jesusek etxean Ondarroako eta Zornotzako suhiak ditu eta alabak euskara batua ikasi izan du, beraz, euskara nahasi bat egiten duela dio. Oraindik ere bere euskara mantentzen duela uste du. Auzoko jendeak seme-alabei gazteleraz erakutsi izan diete beti txikitatik, guraso biek euskaraz jakin arren.

55. Hika, zuka eta gurasoei berorika (BSR-030/012)

Maria Jesusen amak hika hitz egiten zuen, gurasoei berorika eta seme-alabei zuka hitz egiten zien. Berak gurasoei berorika egiten zien. Anai-arrebekin zuka egiten zuen. Lagunekin egin izan zuen gaztetan hika.

56. Karta jokoan (BSR-030/013)

Karta jokoan asko ibiltzen ziren Maria Jesusen inguruan. Briskan, musean eta tutean jolasten zuten. Mus txapelketak ere antolatu izan zituzten. Maria Jesusen osaba eta beste gizon bat bertsoan eta adar jotzen ibiltzen ziren.

57. Santa Ageda kantuan (BSR-030/014)

Maria Jesusen osabak Santa Agedako bertsoak egiten zituen. Etxez-etxe ibiltzen ziren filarmonikarekin kantuan eta borondatea jasotzen zuten; dirua edo jatekoa.

58. Zeberiotik Basaurira (BSR-032/004)

Ama Zeberiokoa zuen. 10 urte bete arte amonarekin bizi izan zen Zeberion, ondoren Ugaon bizi izan zen 6 urtez eta gero Basaurira joan zen. Elkarrizketa garaian ilobekin egiten zuen euskara gehien. Semeak bazekien euskaraz baina alabak ez.

59. Batzokiko presidente (BSR-032/006)

Jose Ramon batzokiko presidentea izan zen. Gerra aurretik, 1930ean, sortu zen batzokia Basaurin. Sari bat eman zioten 1988an, egindako lan guztiagatik. Dokumentua etxean gordetzen zuen.

60. Gerra garaian kartzelan (BSR-032/007)

Jose Ramon Larrinagako kartzelan egon zen zazpi aldiz. Jarrera ona izatearren ez zuen denbora asko igarotzen kartzelan. Basauriko kartzelan jipoi bat eman ziotenekoa kontaktzen du. Militarrentzat mekaniko lanetan ibili izan zen, koronelaren automobila konpontzen ibiltzen zen. Tenienteak kotxea ipintzen zion Espainiako herri desberdinetatik Basaurira deklaratzera joateko.

61. Zeberioko euskara (BSR-032/009)

Zeberioko euskara hitz egiten zuen Jose Ramonek. Gipuzkoako euskararekin desberdintasuna ikusten zuen, bere inguruan antzeko euskara omen zen. Dimako txikiteoko lagunekin hitz egiten zuen euskaraz.

62. Txikitatik euskaraz (BSR-033/002)

San Migelen jaio zen. Ama Bakiokoa eta aita Artzentaleskoa zuen. Amak euskaraz hitz egiten zuen eta aita ulertzeko gai zen. Emazteak ez zekien euskaraz eta alabak eta semeak euskaraz ikasi zuten, nahiz eta berarekin ez hitz egin sarritan.

63. Elgoibarren lanean (BSR-033/004)

Elgoibarren egon zen lanean Basconiatik bidalia. Bertan euskaraz egiten zuen, nahiz eta Elgoibar eta Eibarkoen euskara berezia izan batzuetan. Bakioko eta San Migeleko euskara nahasten zituen eta bereizteko gai zen, nahiz eta ez zuen desberdintasun handirik ikusten. Bermeo eta Bizkaiko beste herrien desberdintasunez hitz egiten zuen.

64. Euskara "zarratua" politen (BSR-033/005)

Euskara garbia eta gaztelerazko maileguez hitz egiten du Juanek. Euskara polita zein den azaltzen du.

65. Umetako Basauri (BSR-035/002)

Pedroren aita herriko eliza egiten ibili omen zen. San Migeleko ermita besterik ez zegoen eliza sortu aurretik. Bera gazte zela Basauriko auzoak nola zeuden azaltzen du.

66. Gari batzen (BSR-036/003)

Garia nola ereiten zuten kontaktzen du Josek. Bildu ondoren hazia nola garbitzen zen; eskuz egitetik makinan egitera pasa ziren, eskuz funtzionatzen zuen baina garbi-garbi geratzen omen zen. Zeberioko erroterra joaten ziren. Artoa erretzeko egiten zuten labeko sua.

67. Artoa egiten (BSR-036/004)

Artoa egiteko lurra nola goldatu, artoa nola erein eta jorratzen zuten kontaktzen du Josek. Garandu eta erroterra eramaten zuten artoa, taloa egiten zuten ondoren.

68. Fruta-arbolak (BSR-036/006)

Josek fruta-arbola batzuk baditu baserrian baina gauza gutxi. Garai batean, gaztainak eta pikuak ere izan zituzten. Auzokoak fruta-arbolak izateko ohitura handia duela kontaktzen du.

69. Txerri boda (BSR-036/008)

Txerri bi hiltzen zituzten urtero. Gabon aurretik eta ondoren hiltzen zituzten. Txerri boda egiten zutenean nolako giroa egoten zen kontatzen du Josek. Emakumeek egiten zituzten lan desberdinak azaltzen ditu.

70. Papeleran lanean (BSR-036/010)

Aitak fabriketan ez sartzeko eta ikasteko aholkatu zien. Josek zurgintza ikasi zuen. Marrazketa eta planoak egiten ikasten egon ondoren, arotz lanetan hasi zen. Baina horrek etorkizunik ez zuela eta, Arrigorriagako paper-fabrikara sartu zen.

71. San Migelen eskolan (BSR-036/011)

San Migelen joan izan zen eskolara Jose. Euskaraz hitz egiten zuenean maistrak jo egiten zuela kontatzen du. Eskolatik kanpo ere irakaslearekin joaten ziren gehiago ikastera eta orduan umore hobea izaten zuela kontatzen du. Gazteleraz ongi ikasi ez duela dio Josek.

72. Gerra garaian baserrian (BSR-036/013)

Gerra garaian 10 urte zituen Josek. Goserik pasa ez zuela gogoratzen du, auzoko eta etxeakoak ez ziren kanpora joan. Etxean esnea izaten zuten eta baratzean beti zerbait biltzen zuten.

73. Lapatzan jaio eta bizi (BSR-038/002)

Kalixta Lapatza baserrian jaio eta bizi izan zen. Aita bertakoa zen eta ama Zamudiokoa.

74. Aitue eta amandrea (BSR-038/003)

Amandre eta aitue deitzen zitzaaien garai batean aitona-amonei. Zamudio eta Basauriko euskaran desberdintasunak ikusten ditu Kalixtak. San Migelen euskaraz ia egiten ez dela diote.

75. Berorika konfiantza gutxi duenarekin (BSR-038/005)

Berorika hitz egitea, errespetuz hitz egiteaz gain konfiantza eza dela dio Kalixtak. Gaztetan hiketan egiten zutela gogoratzen du baina grabaketa egin zenean gutxi egiten zen. Emakumeen artean hika egitea motza dela iruditzen zitzaion.

76. Gari-joten (BSR-038/010)

Garia erein eta alerik ez galtzeko, oheko izarak erabiltzen zituztela azaltzen du Kalixtak. Auzolanean asko aritzen omen ziren. Eskuz lan egiten zen eta garia saldu edo errotara eraman eta ogia eta artoa egiten zituztela dio. Iberreko errotara joaten zen bildutako gariarekin.

77. Txerri-boda (BSR-038/018)

Txerria urtero hiltzen zuten. Gabon inguruan hiltzen zuten eta txerri-bodan beti senideei deitu eta jende asko biltzen zen etxean. Auzoan partitzen zuten txerriaren zati bat. Txerria hil eta zer egiten zuten azaltzen du Kalixtak.

78. "Urkitzenetik" Errekaldera (BSR-041/004)

Zeziaren aita "Urkitzene" baserrian jaio zen. Ama Larrabetzutik ezkondu zen bertara. Zezilia Errekaldeko baserrira ezkondu zen eta alabarekin bizi da orain bertan.

79. Euskaraz egitearren mehatxuak (BSR-041/008)

Kalera esnea saltzen joaten zen gaztetan Zezilia. Guardia Zibilek beste esne-saltzaile batekin euskaraz hitz egiten entzun eta horman fusilatuko zituztenarekin mehatxatu zituzten. Etxean euskaraz hitz egiten zuen, baina kalean ez zen ausartzen. "Cara al sol" abesten zuela gogoratzen du.

80. Plazan euskaraz (BSR-047/003)

Maria plazara joaten da eta bertan euskaldunekin hitz egiten duela dio. Inguruko euskaldunak badirela dio. Galdakaoko lagunekin hitz egiten dute euskaraz.

81. Ikerketarako zenbait galdera (BSR-049/002)

Basauriko euskara jasotzeko Joseri egindako galdera sorta bat jasotzen da pasarte honetan.

82. Basauriko auzoko euskaldunak (BSR-050/003)

Ferminek Basauriko auzoko euskaldunak aipatzen ditu.

83. Odolosteak egiten (BSR-053/003)

Odolosteak nola egiten diren azaltzen du Karmenek.

84. Baserriko morroia, bolondres (BSR-054/004)

Karmenen baserrian morroi hasi zen gizonaz dihardu, nola laguntzen hasi, eta morroi bukatu zuen. Trukean, janaria ematen zioten.

85. Lehengo eta oraingo euskara (BSR-055/001)

Lehengo euskararen inguruan jarduten dute.

86. Basauriko euskararen egoera (BSR-056/003)

Basauriko euskararen egoeraren inguruan hitz egiten du irukoteak.

87. Basauriko eta inguruko euskara (BSR-058/004)

Basauriko euskara inguruko euskararekin konparatzen du Kalixak. Bere iritziz, Zaratomoko euskara oso ezberdina da, politagoa.

88. Auzoko euskaldunak (BSR-059/004)

Auzoko euskaldunak izendatzen dituzte.

89. Arrigorriagako paper-fabrika (BSR-059/006)

Arrigorriagako paper-fabrika.

90. Lan istripua (BSR-060/001)

Mariaren auzoko bati gertatutako istripua kontatzen du Mariak.

91. Mariaren senideak (BSR-061/004)

Mariaren senideez ari dira pasarte honetan.

92. Inguruko lursailak (BSR-062/001)

Inguruan zeuden lursailez ari da Maria pasarte honetan.

93. Lehengo eta gaur egungo jatekoa (BSR-063/002)

Garai bateko eta gaur egungo janariaren inguruan ari da Karmen pasarte honetan.

94. Likoregintza (BSR-064/002)

Likoregintza du mintzagai Karmelek pasarte honetan.

95. Auzokoak (BSR-065/004)

Pasarte honetan karmenek bere auzoko baten eta familiaren arteko harremanaren berri ematen du.

96. Auzokoa mozkorturik (BSR-066/001)

Auzokoekin loturiko anekdota bat kontatzen du Karmenek.

97. "Maketoz" inguraturik (BSR-067/003)

San Migeleko euskararen egoeraz ari da Karmen. Gutxi egiten du euskaraz bertan, gehienak erdaldunak baitira "maketoak". Gogoratzen du burla egiten ziotela erdaraz ez jakiteagatik.

98. Amaren aholkua (BSR-068/003)

Amak esandakoa gogoratzen du Karmenek.

99. Kanpoan ikastea (BSR-069/001)

Betidanik bizi izan du penaz Karmelek bere seme-alabak ikastera kanpora joan izana.

100. Karmenen baratzea (BSR-070/004)

Karmenek bere baratzea nolakoa den azaltzen du.

101. Erderaz hitzik ez (BSR-071/003)

Karmenek bere inguruan euskararen egoera zein zen azaltzen du.

102. Amari berorika (BSR-072/002)

Aitari zuka eta amari berorika egiten zion Karmenek. Gurasoei gosaria prestatzen ziela gogoratzen du.

103. Auzokoak eta euskara (BSR-073/002)

Fermin auzoko euskaldunez eta euskararen egoeraz ari da pasarte honetan.

104. Bilbora esnea saltzera (BSR-074/002)

Pasarte honetan Bilbora esnea saltzera nola joaten zen kontatzen du Karmenek.

105. Karmenen eta senideen euskara, ezberdina (BSR-075/002)

Karmenek igartzen du bere euskara eta bere senideena ez dela berdina, aldatzen joan dela.

106. Gerra denborako oroitzapenak (BSR-075/004)

Karmenek Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu pasarte honetan, nola jendea hiltzen zuten kartzeletan, eta berak ganbaran egiten zuela lo.

107. Alaba ikasle bihurria (BSR-076/004)

Alaba moja-eskolara joaten zen, eta oso bihurria zen, ez baitzien gainontzeko ikasleei ikasten uzten. Gogoan du Karmenek lezioa goizean goiz pasatzen ziotela, ikasteko denborarik izan gabe.

108. Buruan zer? Zorriak (BSR-078/002)

Karmenek gogoan du aitari buruan zer zuen galdetzen ziotenean, bere erantzuna beti "zorriak" izaten zela.

109. Gaztelania euskarari irabazten (BSR-079/002)

Ingurua erdaldundu eta euskara desagertzen joan dela dio Karmenek pasarte honetan.

110. Soroan abesten (BSR-080/002)

Garai batean larunbatero abesten ziren kantu zaharrak, baina gaztelaniaz. Soroan lan egiten zuten bitartean ere abestu egiten zuten.

111. Aitona euskararen aldekoa (BSR-102/003)

Maria Jesusen aitona euskararen aldekoa zen, eta gaztelaniazko hitz bat entzundakoan madarikatzen hasten zen.

112. Garia ereiteari utzi (BSR-102/005)

Garia ereiteari utzi zioten Francok uztaren zati bat entregatu behar izana bertan behera utzi zuenean.

113. Antzinako kontuak (BSR-126/003)

"Arizko faroa", bertatik pasatzeko beldurra izaten zuen lehen jendeak. Antzinako kontuak. Bide-lapurrak.

114. Garai bateko Uribarri auzoko bizimodua (BSR-128/001)

Antzinako bizimodua. Uribarri auzoa. Lehen behealdean bakarrik lantzen omen ziren soroak; goialdean ganaduak ibiltzen ziren. Baserri guztiek izaten zuten idi-parea. Ikatz garraioa.

115. Artunduaga auzoa nola aldatu den (BSR-129/001)

Artunduaga auzoa nolakoa zen antzina. Zubi ederra zegoen eta erromeria antzekoa egiten zen. Gazte asko biltzen zen. Lehen familia handiak ziren eta denak euskaldunak. Etxebarria lantegia etorri zenean aldatu zen auzoa. Lehen soro handiak ziren bertan; indaba eta arto ederra hartzen ei zen lurrotan.

116. Bidebietara egunero, esnea saltzera (BSR-130/002)

Garai batean Bidebietara joaten zen egunero astoarekin, behi-esnea saltzera. Hogeita hamar urte baino gehiagoz joan zen bera. Inguruko baserrietatik nortzuk joaten ziren. Bueltan, asto gainean itzultzen zen Zezilia.

117. Aitak kontatzen zuen istorioa (BSR-132/002)

Aitak kontatzen zuen istorio bat.

118. Esnea saltzera Bilbora (BSR-132/003)

Karmenen neba esnea saltzera joaten zen eta behin "hungaroak" irten omen zitzaizkion bidera gauetz. Karmen Bilbora joaten zen esnea saltzera; lehenengo astoarekin, gero karroarekin eta azkenean autobusean. Erromeriara ere joaten ziren Bilbora. Beraiek egindako gaiztakeria.

119. Gaztetako ibilerak; mutilei kalabazak (BSR-132/004)

Erromerian, eurak dantzan ari zirela bueltan korroa egiten zieten. Mutil asko izan zituen atzetik Mariak, baina kalabazak ematen zituen. Neska bihurria zen gaztetan, sekulakoak egiten zituen. Bi lagun ibiltzen ziren elkarrekin eta hika egiten zioten elkarri.

120. Gaztetan mutilei egiten zizkien bihurrikeriak (BSR-132/005)

Gaztetan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean. Mutilei egiten zizkien bihurrikeriak. Bihurria eta parrandazalea ei zen.

121. Gaztetako bihurrikeriak; lapurretak (BSR-132/006)

Gaztetako bihurrikeriak; lapurretak.

122. Kanta laburra (BSR-132/007)

Kanta labur-labur bat.

123. Euskararen gainbehera gerraren eraginez (BSR-133/001)

Gerrak ekarri zuen euskararen transmisioan etena. Beraiek dena euskaraz egiten zuten eta ez zekiten gaztelaniaz. Baina gerra ostean debekatuta zegoen euskaraz egitea eta bere anai-arreba gazteenek ez zuten ikasi. Gainera, kanpoko jende asko etorri zen eta orduan hasi ei zen "nahastea".

124. Baserriko lana nahiago lantegikoa baino (BSR-135/002)

Baserrian bizi arren, lantegietan ere ibili izan da lanean. Gogorra izan arren, nahiago du baserriko beharra eta bizimodua.

125. Behien inguruko azalpenak (BSR-135/003)

Baserriko lanak ez du etenik. Behiek lana eskatzen dute. Goizean eta gauean jetzi egin behar izaten dira. Behia ernari dagoenean, behin bakarrik.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com